

GUARDETXE
ARALAR



Aralarko guardetxea, bueltan

Aurreikusitako bi eraikinetako bat, basozainarena, udarako egingen dute / 2-3



Lakuntzan San Saastin festak asteburuan ospatuko dira. Olatzagutian, berriz, bihar / 11

AHTko ibilbide proiektuaren jendaurreko epea zabalik, alegazio garaia / 12-13

Dorraako, Bakaikuko, Iturmendiko eta Urdiaingo San Anton kofradiak asteburuan dute hitzordua / 10

Irurtzungo Atakondoa eskolako espazio faltari aurre egiteko eraikin berri bat jasoko dute udan / 5

Lakuntzako Udalak milioi bat euroko aurrekontua du. Hiru kaleetako sareak eta zola berrituko dira / 7

Umeei baso ustiapena azaltzen die Beltzek; album ilustratua baino gehiago den proiektua / 23

Nafarroako Abiadura Irristaketa Indoor txapelketa Olatzagutian hasiko da bihar / 17



Sakanako pilota txapelketako 11 finalak Lakuntzan eta Arbizun jokatuko dira bihar / 15



Aralar mendiko larreak. ARTXIBOA

Aralarren zaintzaz arduratzen den elkarte

Aralarko Elkarte Erdi Arotik datorren toki entitate bat da. Frankismoaren garaian galdutako jabetza berreskuratze lanetan ari da. Gainera, Guardetxe berria aurten eraikiko da, aurrekoa duela bederatzir urte Nafarroako Gobernuak bota zuen-eta

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Aralarko mendia kudeatzen du Aralarko Elkarteak Erdi Arotik datorren pribilegio baten arabera. Toki-entitate tradizional bat da, beraz. Haren esku daude Aralar mendiko bi mila hektarearen kudeaketa, pagadia eta larreak erdibana. Bestalde, Europar Batasuneko garrantzizko lekua izanik, kontserbazio be-

reziko eremua da eta Natura 2000 sarearen barruan dago. Hortaz, Nafarroako Gobernuaren eta Europaren legediaren arabera kudeatu behar dute mendia.

Elkarte bi batzarren bidez kudeatzen dute: Batzar Iraunkorrean bost herri daude, Irañeta, Arruazu, Lakuntza, Betelu eta Gaintza. Eta Batzar Orokorean, berriz, elkarte osatzen

duzen hemeretzi herriek parte hartzen dute. Aurrenekoaren egitekoetako bat, esaterako, urteroko aurrekontuak prestatzea da, gero Batzar Orokorean aurkezteko.

Presidentea Lakuntzako alkatea da historikoki, beraz, Patxi Xabier Razkin da orain Aralarko Elkarteko presidentea. Herri bakoitzak ordezkari bat dauka;

zinegotzi bat edo alkatea. Langile bakarra dago elkartearen, Javier Otamendi, Aralarko zain-tzailea.

Mendia behar bezala kudeatzeko ordenantza bat du Elkarteak; aurreneko ordenantza 1770-06-27koa da, azkena 2012-05-14koa. "Gaur egun dauzkagun eskumenak larreen kudeaketa eta aprobetxamendua, egur loteak eta haien salmenta, ehiza eta, puntualki, Nafarroako Gobernuarekin batera turismoa kudeatu izan dugu", azaldu digu Razkinek. Mendiaren kontserbazioaz eta garbiketaz ere Aralarko Elkarte arduratzen da Nafarroako Gobernu eta Europako araudiak jarraituz.

Jabetza

Franco hil ondoren, 1987an, Estatuak mendi guztien jabetza Nafarroako Gobernuari itzuli zion. Nafarroako Gobernuak Aezkoa, Kintoa eta beste entitate batzuei itzuli zizkien haien lurraldeak. "Momentu horretan ez zen aukera hori hartu. Eta ondoren damutu gara". Orain, jabetza berreskuratze bidean dago Aralarko Elkarte. Izan ere, Aralar Elkarteak bere eskubideak ditu mendian. Elkarteak beste administrazioen eskubide urraketak epaitegietan defendatu behar izan ditu Erdi Arotik 2002ra arte. Baita lortu ere. Horregatik, elkarteok mendiaren titulartasun osoa bere esku uztea nahi dute.

"Nafarroako Gobernuarekiko harremana printzipioz ona da". Duela urte bat Aralar Elkarte, Razkinek ordezkatuta, Nafarroako Parlamentuan egon zen lurraldearen titularitatea itzultzeko eskatuz, "beti izan den bezala". Parlamentuan eskaera ongi hartu zutela adierazi du, eta

legea tramitatzen ari direla. Gero Toki Administrazio Departamentuarekin, Isabel Elizalderekin, negoziatioari heldu beharko diote gero. Nafarroa hiru eskualdetan banatu nahi du Gobernuak: Pirinioak, Erdialdea eta Erribera, eta, azkenik, Eskualde Atlantikoa deituko. "Hor dago Aralar sartuta. Erabilera publikoko plan berria negoziatzen ari gara".

Planaz

Razkinek azaldu digunez, erabilera publikoko planaren parte prozesuan daude. Honakoak ari dira parte hartzen: Sakanako Garapen Agentzia, Plazaola turismo partzuergoak, Aralarko Larreen Batzordea, Nafarroako Gobernuko turismo arduradunak, Lur Sarea (Nafarroako Jasangarritasun Agentzia) eta atlantiar eskualdeko basozainen burua.

"Bakoitza bere zatia lantzen ari da" esan digu Razkinek, eta gaineratu du: "Guardetxe berria hor sartuta etorriko litzateke. Baina, gure interesa da, mendiaren titularitatea jasotzea guardetxe berria jaso baino lehen".

19 herri elkarte

Aralar Elkartearen daude mendiaz bestaldeko Arribe, Atallu, Azkarate, Betelu, Errazkin, Gaintza, Intza eta Uztegi; eta Sakanako Hiriberri, Ihabar, Irañeta, Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Unanu, Dorrao, Lizarraga, Lizarragabengoa eta Etxarri Aranatz.

Ostiraleroko SAIOA

9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera

Metropoli forala

9:00etatik 11:00etara

Esataria: Alfredo

Ostiraleko gaiak:

- Aralarko Elkarteaz Patxi Xabier Razkinekin
- Lakuntzako danborradako txanoa jasoko duen Jokin Alegria
- Igor Erbiti Saizarrekin Beltx beheko basoan album ilustratuaz

beleixe

www.guaixe.eus-en ON LINE

Beraz, jabetza Elkarteari itzul- zeko negoziaketak hasi dira.

Abeltzaintzaren garrantzia

19 herrietako 62 ganaduzalaren 6.800 ardi, 250 behi eta 800 behor inguru egon ziren 2017an Aralar larreetan. "Kriston garrantzia dauka azienda horrek larreen kudeaketarako. Aralarren dauden larreak ez dira naturalak, Suitzakoak bezala. Larre hauek abeltzaintzak sortu ditu". Abereak sortu zituzten larreak duela 3000 urte inguru Razkinek azaldu bezala. "Ekosistema hori mantentzeko abere kopurua handia behar dugu".

"Lehen sektorea ez dago bere momenturik onenean eta gazteek arazo asko dituzte horretan jarraitzeko". Hortaz, larreak txikitzen ari direla esan du Razkinek. Lehen sektoreari edo abeltzaintzari bultzada eman nahi diote Aralar Elkartetik. Horretarako produktu berrien sorrera bultzatu nahi dute. "Iparraldean eta Gipuzkoan mendi gaztak ekoizteko esperientziak daude. Produktu oso interesgarria da. Edo mendi-haragia edota halako produktu ekologikoak".

Mendi Gazta proiektu pilotua

Mendian egindako gazta berezia da Mendi Gazta. Artzainek aspaldi eskatuta, Aralar Elkarte Nafarroako Gobernuaren Lur Sarea agentziarekin lantzen ari da proiektua. Gipuzkoan eta Iparraldean dagoeneko martxan dute egitasmo hori. Nafarroan antzeko zerbait egiteko Aralarren proiektu pilotua egingen dute. Hiru artzainek dute horretan interesa oraingo. Haien mendiko txabolak egokitu beharko lirarteke.

Esnea da aldatzen dena, mendiko belarrari esker oso ezaugarri bereziak dituen esnea ekoizten baita. Zapora berezia, biziagoa du, eta koipe gehiago ematen dio esnari. Altuerak eta lekuak horretan zerikusia dute.

Produktu horiei bultzada emateko baldintzak sortu behar dituzte; "inbertsioak", azken finean. Produktu horiek Guardetxean erosteko aukera egongo litzateke, Aralar Elkarteak proposatutako proiektu integralaren arabera.


Turismo jasangarria

Aralarko Elkartearen kudeaketaren beste puntu garrantzitsu bat turismoa da. "Bisitariak badauzkagu, eta etorkizunean gehiago izanen dira". Ordenatu behar dutela dio Razkinek. Guardetxearen proiektu integralaren barruan egonen litzateke turismoa ere. Jendeak "produktuak" kontratatu ahal izatea nahi dute: txangoak, birding edo txoriak ikusteko txangoak, kirolarekin zerikusirik duten jarduerak, orientazio probak, eraikin megalitikoak, Amutxateko kobazuloa... "Altxor bat daukagu". Hortaz, bisitariari "azaldu" behar zaie mendian nola jardun behar duten. "Abeltzaintza eta turismoa bata besteari lagundu behar dio. Ezin dugu onartu artalde bat ikusi eta ardien atzetik jolasean egotea". Bisitariarekin "pedagogia asko" egin behar dela gaineratu du Razkinek. Bisitariari ere "dauzkagun larreak zergatik dauzkagun" azaldu behar zaiela gaineratu du presidentek, baita lehen sektorekoen produktuak ere.

Aurrekontua

Aralarko Elkartearen aurrekontua 70.000 euro ingurukoa izan zen 2017an. Razkinek azaldu duenez, "oso aldakorra da" kopurua, egurraren salmentarekin lortzen dutelako diru sarrera bakarra. Hortaz, loteak bi urtetik behin saltzen dituzte. "Bi urtean behin diru-sarrera potoloak ditugu, baina gero ez dugu sarrerarik".

Aurtengo aurreikusitako lanen artean Arruazuko muga ixtea dago batetik. Bestetik, Europatik bost urterako 150.000 euroko diru-laguntza jaso du elkarteak, 2018-2022 aldirako. Natura 2000 sareko mendi larreak laguntzeko diru-laguntza horren bidez zein lan egin zehazteko abeltzainak eta teknikariak elkartu ziren. Haien adostutako irizpideei segituz egingen dira, besteak beste, gabelak non jarri eta behin otea kenduta aziendarendako behin behineko itxiturak non egin behar diren, otea behin betiko desagerrarazteko.



Udarako jasoko den guardetxearen zirriborroa, Iñaki Urkiak egina. UTZITAKOIA

Guardetxe berria udarako

Jabetza bueltatu eta kudeaketa plan berria negoziatzearekin batera, guardetxea da Aralar Elkarteak Nafarroako Gobernuari egiten dion eskaera nagusia. "Guardetxea bota zenean Gobernuak 206 zuhaitz bota zituen baimenik gabe. Zuhaitz horiek gureak dira. Beraz, Gobernuaren proposamena etxola bat egitea da gure material horrekin". Elkarteak proposamena onartu du, baina haien "baldintzak" jarri ditu etorkizuneko Guardetxearen proiektua baldintzatu gabe.

Bioeraikuntza proiektua aurkeztu dute. "Aralarko zurarekin egingen da eta isolatzeko mendiko ardiaren artilea erabiliko da. Ekonomia zirkularraren ereduari segituz". Proiektua halako eraikinetan eskarmentu handia duen Iñaki Urkia arkitektoa ari da prestatzen. Berea da, esaterako, Arbizuko eko-kanpinaren proiektua.

Guardetxe zaharra zegoen alde batean jasoko dute eraikin hori: "Guardetxe bat egin nahi dugu, baina guardetxe esaten dudanean, zaintzailearen etxea da, besterik gabe". Horregatik, 60 metro karratu izanen ditu eta eraikinean bulegoa, komuna, arreta gunea, bildegia eta beste izanen ditu. Aralar elkarteak eraikin horretarako finantzazioa

lotuta du: Nafarroako Gobernuak pagatuko du den-dena. Denez, galdetuta Razkinek esan digu lanak udaberriari hasi eta udarako despeditu nahi dituztela. "Udarako bukatuta badago, turismo informazio puntua han jartzeko proposamena egin diegu Sakanako Garapen Agentziari eta Plazaola turismo partzuergoari". Haien erantzunaren zain daude elkarteak.

Eraikin nagusia

Guardetxe berria proiektu integrala izatea nahi du Aralar Elkarteak. "Proiektu potoloa da. Aurrekoarekin antzekotasun gutxi ditu". Elkarteak proiektuak bi eraikin baititu. Aipatutako basozainaren bulegoaz aparte, eraikin nagusia izanen da. Hura noiz, nola egin eta finantziazioa lotzen orain ari da negoziatzen elkarteak. Presidenteak esan digunez, aurreproiektuak 150 metro karratuko eraikin bat aurreikusi dute. Han taberna legoke, errazioak, pintxoak eta

BASOZAINARENDAKO IZANEN DEN ERAIKINA UDARAKO PREST EGONEN DA

ERAIKIN NAGUSIA EGITEKO NEGOZIAZIOETAN DAUDE ELKARTEA ETA GOBERNUA

bestelako jatekoak emanen litzukeena. Jatetxerik ez, beraz. Horrekin batera, ikus-entzunezkoen gela luke. Razkinek azaldu digunez, Aralar, bere larreak nola sortu ziren eta nolakoa den erakutsi nahi lukete, interpretazio gela modukoa litzateke. Gainera, bertako ganaduzaleei, lehen sektoreari "bultzada handia" emateko produktuak saltzeko aukera eman nahi diete eta, horretarako propio, tokiko produktuak saltzeko espazioa egonen litzateke. Eraikin berean turismo informazio bulegoa aurreikusten dute ere.

Mende bateko eraikina

Aurreko guardetxea 1901ean eraiki zuten. Eraikin hura 2009ko apirilean bota zuten. 108 urte zituen. Eta, horregatik bota zutela uste du Razkinek: "familiak titularitatea hartu ez zezan". Izan ere, 1940az geroztik Zufiur familiari lotuta egon zen guardetxea Migel lehenik eta Jose semea gero mendi zaintzaileak izan zirelako. Egoera tamalgarrian zegoela argudiatu zuen gobernuak. Elkarteak aurberitzeko proiektua aurkeztu bazuen ere, ez zen onartu. Orduak, Guardetxe berria eskatu izan diote. "Gobernu berriarekin akordioa dago".



ASTEKOA

XABIER REPARAZ EXTRAMIANA

Gatazka zaharren zentzua

San Saastin bezpera. Lakuntzarrendako egun handia. Aldabako herri desagertuan, Aralarren magalean, bere kideek geziz hildako erromatar legionari kristauaren martirioa ospatzeko baino, urte berriaren zikloa ospatzeko burrunbaren jai. Antzinako herri hartara, Arruazuko muga pasata, azken biztanle zaharren laguntzan joandako lakuntzarren sari dira hango lurak. Izurrite batek biztanle guztiak akabatu omen zituen, andre zahar bat izan ezik, hari laguntza eman eta izenaz gain, lakuntzarrek Aldabako lurak ere jaso zituzten saritzat.

Aldameneko herrien artean ordea ez da izan beti laguntza eskaintza. Arbizuarekin izandako borrokak mitikotzat har ditzakegu. Gure aitonek igandetan meztatik atera eta besterik gabe lakuntzarrekin harrika hasten omen ziren Muganeako dermioan. Behin Lakuntzako plazaraino iritsi ziren haur arbizuarrak kontraofentsiba taktikoan. Kontrakorik guri ez ziguten aipatu behintzat. Batzuen ustez, duela ehun urte arbizuarrak batzuk neskak kortejatzerara joan omen ziren hara, eta egurtuta itzuli. Besteen ustez San Donatoko uren gaineko jabetzan dago gako. Guztiak ere aspaldiko kontuak.

Gaur egun, haur arbizuarrak lakuntzarrekin jauzika ibili ohi dira Arakileko uretan, Lakuntzako presan elkarrekin. Lagun Artea futbol taldean ere ugari dira aldameneko herriko haurrak. Kontu zaharrez zaharrek arduratu beharko dute, belaualdi berriek apurtua baitute antzinako gatazken zentzua. Ongi pasa San Saastiñetan!

GUTUNA

Zama doinu arindu

MIKEL MUNDIÑANO LARRAZA

ETXARRIKO SARE HERRITARRA

Hirugarren urtez arindu dugu zama. Azken bi edizioetan gertatu bezala, oraingoan ere sarriera guztiak agortuak zeuden igande honetan Etxarri Aranzten antolatuta zegoen “Zama doinu arindu” hirugarren edizioarako. Aurtengo kartelak ere igar zezakeen halakorik: hurrenez hurren igo ziren Alex Sardui eta Haimar Arejita (Gatibu), Irati Lasa, Petti, Mikel Urdangarin, Ines Osinaga, Ekiza, Kuxi Romero eta Niko Etxart euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko elkartasunaren oholtzara, haien doinuekin sufrimenduaren motxila arintzera.

Baina aurtengo jaialdiak gehiago ere bazekarren: Porrotzek, Bilboko bezperako

manifatik bueltan zetorrela, Etxarri Aranzten egin zuen geltokia, erakustera denok elkarrekin joz gero, etsipenaren, nekearen, tristuraren aurrean irribarreak, maitasunak, elkartasunak, ilusioak eta konpromisoak emanen dituztela emaitzak; eta giza eskubideen errespetuan, gatazkaren konponbidean eta benetako bakerako bidean pausoak emateko guztiok garelako protagonista.

Benetan memento hunkigarriak Nagorek eta Haizek edo eta Xochiltek eta Xubanek senide eta motxiladun umeez Porrotxi haien senide presoaren gutuna helarazi ziotenean. Bikaina azken momentuko festa ere, areto guztia puxikak gora eta puxikak behera, eta

denak batera euskal presoak etxera oihukatuz.

Doinua eta irribarrea jarri genion hainbat urtetako sufrimenduari. Gustura esanen genuke aurtengo “Zama” izan dela azkena. Baina, azkena izanen ez bada ere, pozgarria da eta eskertzekoa da Etxarri Aranz bezalako herri txiki batean, zeinetan gaur egun zazpi euskal preso politiko dauden, honelako elkartasun jaialdi bat antolatzeko “Zama” lan taldeak jarritako ahalegina, dedikazioa eta maitasuna. Eskerrik asko jaialdi hau posible egin duzuen guztioi. Prest gaude! Askatasunerako bidean atzera urratsik ez! Amnistia eta Autodeterminazioa! Gora Euskal Herria Askatuta! Besarkada bat guztioi.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

25 urte

EMAKUMEEN BILGUNEAK

Aurreko abenduan Altsasuko Udalaren Emakumeen Bilguneak 25 urte bete zituen; une hartan 3 hilabeteko proiektu pilotu moduan hasi zena lan egonkor bihurtu da. Egindako ibilbidea errepasatuz gauzak asko aldatu direla konturatu gara, haien artean legea eta gizartearen babilak lortu duela.

Urtemugaren programan parte hartu dutenek agerian

jarri dute ideia hau:

emakumeok, gizartearen %50 garenok, kiroletan, arlo kultural eta artistikoetan, politikan, parte hartze sozialean dagokigun lekua bete eta betetzen ari garela.

Egoera berezi hau kontuan hartuta eta Guaixek emandako aukera aprobetxatuz, ekitaldia bukatu zuen mezua zabaldu nahi genuke, Altsasuri ez soilik baizik eta Sakanako gizarteari eta gizarte osoari bidalitako mezua delako:

‘Inork ez du pentsatu behar hau kasualitatez sortu dela;

ibilitako 25 urte hauetan oso garrantzitsua baita egindako lana: kontzientziatzeko, formatzeko, aholkatzeko, salatzeko, aldarrikapenak egiteko, eta emakumeok elkarrekin egiteko bidea laguntzeko lana.

Oraindik ere ibiltzeko bidea badugu; ziur aski Emakumeen Bilguneak beste 25 urte beteko ditu, baina jarraitzeko elkarren beharra dugu, elkarrekin aukera gehiago izango baitugu, elkarrekin instituzioetan, enpresetan, kulturen, kiroletan edota

pertsonen arteko harremanetan aurrerapen gehiago lortuko baitugu; elkarrekin gizartearen aldaketa bultzatzen baitugu, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak gero eta txikiagoak izaten eginez.

Entzun eta ikusi dugunak etorkizun badugula esaten digu. Hemen dauden andre helduek lortu dutena, ‘betiko gauzak’ dira gazteenentzat, baina, gazteak, zuek ere baduzue egiteko lana! Eta beste eginkizun batzuen artean bi azpimarratzekoak

dira: emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazi behar dugu eta ‘zaintzak’ jarri behar ditugu gure agendetan, nahiz eta gure sistema ekonomikoa ikararazi.

Eta ibilbide hau egiteko gizonak ere nahi ditugu: eraso sexistetan bere isiltasunarekin konplizeak ez diren gizonak, zaintzen dituzten eta bere burua zaintzen duten gizonak, hau da, patriarkatua zalantzan jartzen duten gizonak.

Mila esker guztiei. Gora Emakumeak!

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gixane Andueza Goikoetxea
admin@guaixe.eus

Kolaboratzaileak:

Larraitx Amadoz Lazkano
Zuzentzailea:
Patxi Flores

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEAK:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107
618 882 675
661 523 245

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus

Maketatzailea:

Lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

María Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Espazio faltaren kontra eraikin berria eskolan

Hezkuntza Departamentuak Irurtzongo Atakondoa eskola komunitatearen eskaerak entzun eta ikastetxean duten gela premiari erantzuteko eraikin berria egingen du. Lanak garagarrean hasiko dira eta sei gela berri izanen ditu

IRURTZUN

Aurreikusia zegoena gertatu zen 2010-2011 ikasturtean: Atakondoa eskola publikoa matrikulatutako ikasle guztiak hartzeko nahikoa espaziorik ez zuen, txiki gelditu zen, eta bere sarreran Hezkuntza Departamentuak aurrefabrikatutako moduluetan bi gela prestatu zituen. Hurrengo ikasturtean modulu gehiago iritsi ziren, bi gela gehiago.

Zortzi ikasturte dira moduluak Atakondoa daudela. Eta beste horrenbeste udal teknikariek ikastetxean handik eta hemendik espazioak hartuz gelak sortu dituztenak paperean eta gero departamentuak errealitate bihurtu dituenak. Uda guztietan lanak zeuden, baina hasi guraso elkartetik, klaustratik pasa eta udaleraino, Atakondoko hezkuntza komunitate guztiak konponbide integrala eskatzen zuen espazio falta konpontzeko.



Eskolako patioaren eta Ardubil kalearen artean jasoko da eraikin berria. ARTXIBOA

Eraikinaz

Bilera askoren ondoren, Hezkuntza Departamentuak esan

die aurten dirua duela eta eskolan eraikin berri bat egingen duela. Milioi bat euroko au-

rrekontua du eta lanak garagartzaroen hasiko omen dira. Departamentua ikastetxe proiektua egiteko deialdia egingen du.

Eraikin berria eskolako patioaren eta Ardubil kalearen artean eraikiko da, gaur egun zuhaitzak dauden tokian. Atakondoko eraikin berriak solairu bakarra izanen du, baina etorkizunean gainean beste bat jasotzeko aukera izanen du. Aurten sei gela egingen dira. Haien azpian gelditzen den espazioa patioaren gainean geldituko da eta patioa estalpe bakarra bihurtuko da.

Aitor Larraza Carrera alkateak azaldu digunez, eraikin berri-rako jarraibide batzuk eman dituztela azaldu digu. Esaterako, estalpean komun publikoak jartzearena. Alkateak gaineratu duenez, proiektua kontratazeko deialdia egin ondoren departamentua berak, eskolako zuzendaritzak eta udalak kontratazio mahaia osatuko dute. Eta haiek izanen dira aurkeztutako artean proiektu egokiena aukeratuko dutenak. Aukeratutako proiektua zein den otsailean jakinen dela gaineratu du.

Baina eraikin berria jasota ere aurrefabrikatutako moduluak lau gelak dauden tokian geldituko dira. "Eraikin berriaren bigarren solairua egingen balitz, orduan bakarrik kenduko li-

rateke moduluak", esan du Larrazak.

Institutu eskaera

Atakondoa eskola publikoan ez dago 0-3 urteko ziklorik. Eta ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. maila bukatzen dutenean Iruñera joan behar izaten dute derrigorrezko ikasketekin segitzera. Hezkuntza komunitatearen aspaldiko aldarrikapena da Irurtzunen DBHko 3. eta 4. mailak ikasteko aukera izatea ere. Hau da, 16 urtera arteko ikasleak hartuko lituzkeen institutu bat Irurtzunen eraikitzea da. Udalak gainera horretarako lurrak baditu eta Nafarroako Gobernuari behin baino gehiagotan eskaini dizkio. Baina horri departamentutik ezezkia eman diote.

Ikasleek DBH guztia Atakondoa egingen balute koadrilak eta eskualdeko gazteen arteko harremanak sendotuko liratekeela uste dute eskolaren bueltan dabilzan asko eta asko. Gaur egun Atakondoa eskola publikoan Irurtzongo, Arakilgo, Imozko, Olloko, Goñiko eta Itzako ikasleek ikasten dute.

SEI GELAKO ERAIKIN BERRIA JASOTA ERE MODULUAK EZ DITUZTE KENDUKO

ALBUMAK KONTATZEN IKASTEKO LANTEGIA

0-8 urte bitarteko haurrak dituzten GURASO, ZAINZAILA, IRAKASLE, IRAKASLE-GAI, MONITORE eta LIBURUTEGIKO ARDURADUNEI ZUZENDUA.



Pello Añorga idazlearen eskutik

Urtarrilaren 27an, larunbatarekin, 10:00etatik 13:30era. Olaztiko liburutegian.

Lantegian parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute aldeztu aurretik euskara1@sakana-mank.eus helbidean. Tokiak mugatuak izanen dira. Matrikula 10 eurokoa izanen da.

Berlaratzen direnek aukera izango dute albumak aukeratzen eta erabiltzen ikasteko haurren liburuekiko harreman afektiboa sortzeko txiki-txikitatik.

Antolatzailea:

Laguntzailea:

Mank
s a k a n a





Ikasle Abertzaleak LOMCeren kontra ikasleen erabaki ahalmena defendatu dute.

LOMCEri buruzko galdeketa prestatzen hasi dira

Ikasle Abertzaleak-ek DBH 3tik gorako ikasleei legeari buruz galdekatu nahi diete martxoan

SAKANA

"Ikasleon hitza adierazi eta entzuteko asmoz, martxoan ikasle galdeketa antolatuko ditugu Sakanako ikastetxeetan. Dei egiten diogu ibarreko ikasleriarri galdeketa eta galdeketa prestatetan parte har dezan. Bide batez, guraso, irakasle eta hezkuntza komunitateko gaintzeko norbanako eta eragileei galdeketa egiteko babes eskatzen diegu".

Horixe jakinarazi zuen Ikasle Abertzaleak-eko ordezkari batek asteartean egindako prentsaurrekoan. Euren asmoa da DBH3tik gorako ikasleek botoa emateko aukera izatea. Jakinarazi zuten, galdeketa Altsasu institutuan eta ibarreko ikastolatan egingen da. Eta Lanbide Heziketa institutuan egiteko lanean ari dira. Ikasle Abertzaleak-etik azaldu zuten, "otsail hasieran LOMCEri buruzko galdera zehaztu nahiko lukete. Galdeketa datarik ez dute baina martxoan izanen dela aurreratu dute. Galdeketa "ikasleek boteretzeko eta ikasle hitza entzuteko ariketa" izatea nahi dute antolatzailek.

LOMCEren kontra

PPren gorbenuak onartutako hezkuntza lege berriaren kontra ari dira Ikasle Abertzaleak-etik: "LOMCE inposatu zaigu eta pixkanaka ezartzen ari da. Ikasleok nazkatuta gaude eta gure kabuz erabakitzen hasiak gara". Gogorazi zuten aurreko ikasturtean DBHko 4. mailan egi-

tekoak ziren errebalidari plan to egin ziotela eta aurten ikasle toletako DBHko 1. mailan egitekoak ziren probak ikasle gehienek ez zituztela egin. "Eta etortzen zaizkigun inposizioak desobeditzeko prest gaude".

Ikasleak legearekin kritiko dira, "gure interesetatik oso urrun" dagoelako, eta "inposatua" izateaz aparte, haien "hitza kontuan hartua" izan ez delako. "Erreforma horrek sexismoa eta ikasle espainolizazioa bulkatzen du, guztiz arrotzak diren edukiak ezarri". LHko 6., DBHko 4. eta Batxilergoko 2. mailatan "ezarri" nahi diren errebalidak "urteetan ikasitakoa eta egindako esfortzua azterketa arrotz baten menpe jarri. Horiek gaintzen ez dituztenei ikasleko eskubidea ukatuko ziaie, etorkizun beltzera kondenatuz".

Hezkuntza sistemarekin ere oso kritiko agertu ziren Ikasle Abertzaleko kideak: "helburua etorkizunean bere lan indarra salduko duten eta sistema zalantzan jarriko ez duten objektu akritikoak sortzea da". Ikastetxeetan "ezarritako funtzionamendu modua" ere ez dute gogo: "gure gaineko autoritate baten aurrean obeditu beharra dago, eta obeditzen ez badugu zigortuak gara. Honekin gure gainetik zalantzan jarri behar ez den autoritate bat dagoela erakutsi nahi digute, etorkizunean langile sumiso eta zintzoak izan gaiten". Horrekin guztia-ekin, ikasleei "hitza eta erabakia ukatzen" zaiela diote.

Presoen eskubideen alde Sakanatik Bilbora

Sare herritarrak deitutako "prest gaude" manifestazioan eta antolakuntzan izan ziren

SAKANA

Sarek euskal preso politikoen eskubideen alde larunbatean Bilbon antolatutako manifestazioan makina bat sakandarrek parte hartu zuten. Ibarrean zapi autobus bete ziren 450 bat pertsonarekin: Irurtzun, Arakil eta Lakuntza artean bat bete zuten, arbizuarrek eta etxarrirek hiru; Altsasun eta Olatzagutian bana eta Burundako gainontzeko herrietan beste bat. Gainera, goiz-goizetik beste hainbat, ibilgailu partikularretan edo garraio publikoan, Bilbora joan ziren, Sarek prestatutako egitarauan parte hartuz.

Sare herritarrak akaberan nabarmendu zuen "aurrera goazen seinale" direla joan den urtean Iparraldean gizarte zibilak lortutakoa eta Hego Euskal Herriko parlamentuetan gaixo dauden presoak askatzeko onartutako mozioak. Sareren iritziz "oinarritako eskubideak" dira auzian daudenak (larriki gaixo diren presoak eta dinekoak kaleratzea, presoak etxetik gertuko espetxeetara eramatea eta gradu aldaketak ematea gizarteratzea ahalbidetzeko) eta "justizia trantsizionala eta memoria osoa" eskatu zituen, "hamarkadak irauten ari den bortizkeria eta sufrikarioa" atzema uzteko.

Larunbatean bertan jakin zen Frantziako estatua epaituak dauden euskal presoak gerturatzeko delako. Euskal Herriko gertuen dauden Mont-de-Margasango (234 km) eta Lannemezango (330 km) kartzelak ekarriko dituzte. Euskal Preso Politikoen Kolektiboko 58 kide dira Frantziako espetxeetan gaur egun daudenak, sei ez beste guztiak epaituta daude. Frantziako bi etxarriar preso daude: Jon Gurutz Maiza Artola Saint Mauren (680 km) dago eta eta Oihan Barandalla Goñi, berriz, Lannemezangoan.

Estatua Ospa! ikertzen ari da, "legez kanpo uzteko"

Hala jakinarazi du errepresioaren kontrako mugimenduak eguberritan zabalduko esku-orriak

ALTSASU

Ospa! mugimendutik gogorarazi dute hasieratik "okupazio indarren eta hedabideen jazarpena" izan dutela. Baina jakinarazi dutenez, Altsasuko auzia hasi zenetik "gogorki kriminalizatu" izan dela, "Ospa!ren aldarrikapena terrorismoa balitz bezala saltzen saiatu dira, Alde Hemendik aldarrikapenaren zilegitasuna bera kolokan jarri nahian, mugimenduaren kriminalizazioaren bitartez". Jakinarazi dutenez, "Estatuak bere jo-puntuan jarri gaitu eta mugimendua ikertzen dabil, legez kanpo uzteko".

Gogorarazi dutenez, Ospak! "edozein jazarpeni erantzuten dio zapalkuntzarik gabeko Altsasu eta Euskal Herri libre baten bidean. Horregatik gaude arriskuan, mugimendu deseroso bat garelako, zalantzan jartzen dugulako Estatuen funtsezko tresna bat, errepresio polizia-indarrak". Horregatik, mugimendutik "Ospa! eta bere aldarraren defentsa behar-beharrezkoa" ikusten dute, "etorkizunean etor daitezkeen erasoak salatu nahi baditugu, adibidez, ezin delako onartu Ospa!ren aldarrikapenak zilegi ez izatea".

Mugimendutik gaineratu dutenez, "ulertzen dugu gure praktika eta mezuen inguruan hausnartu eta birpentsatzeko garaia direla, estrategia krudel horri era kolektibo batean aurre egiteko tresnak sortze bidean". Errepresioak "hamaika aurpegi dituen egiturazko biolentzia" dela ziurtatu dute, eta haren gakoak "beldurra eta kontrol soziala" lirateke. Errepresioari "aurre egiteko mekanismoak sortzeko behar larria sentitzen" dutela jakinarazi dute eta, ondorioz, Ospa!ren "borroka behar-beharrezkoa" jotzen dute, "gizarte gatazkak eta errepresioak ekarri baitute gure sorrera".



Aurrera Altsasu kantaren aurkezpena.

Auziko kanta, bideo ikusien artean

Joan den urtean euskaraz argitaratutako bideoen artean bisita gehien dutenen artean 4.a da

ALTSASU

2017a Youtuben gehien ikusitako euskarazko bideoen zerrenda egin du www.TBX.eus (te-be-ixa) web orriak. Zerrendan musika bideo ugari daude eta ikusiena Gatiburen *Aske maitte* kantua da. Gizarte eta politika gaiekin lotutako musika bideoak ere ikusien artean daude, hala Altsasuko auziko kantua, *Aurrera Altsasu*, laugarren postuan dago. Altsasuko gurasoen Youtubeko kanala bisitatuen artean 5.a da. EITBrena da lehen.

TBX.eus joan den urtean sortu zen eta euskaldunok Youtuben ikusten ditugun euskarazko bideoen sailkapen automatiko eta jarraitu bat da. Youtuben argitaratzen diren euskarazko bideoak gordetzen ditu webguneak, eta horrela sortu dute sailkapena.

Bestetik, Altsasuko Gurasoek batzarrera deitu zuten atzo. Altsasuko auzia ez dela terrorismoa, preso dauden hiru gazteen askatasuna eta haiendako justizia eskaera zabaldu nahi dute eta, horretarako, Nafarroan barna bira bat egitea erabaki dute. Herritarren eta kolektiboaren laguntza prestatu nahi dute bira hori, horregatik, deitu zuten batzarrera.



Galdara berriak lau solaituko eraikina berotzen du.

Olentzerok berogailu berria ekarri zion kontzeju-etxeari

Biomasako galdara berria abenduan mustu zuten eta harekin lau solairuko etxea berotzen dute

IHABAR

Ihabarko kontzeju-etxean egurreko berogailu bat zegoen. "Baina 40 urte baino gehiagotan ez da ibili. Hautsita ezagutu dut beti. Eta estufa elektrikoak erabili behar genituen". David Erbiti Irañeta kontzeju-buruaren azalpenak dira.

Gauzak aldatu egin dira: biomasako galdara berria dute, alderantzikatutako sugarra duen egurrezko gasifikazioko galdara. Ohiko egurrezko galdaren aldean sugarra alderantziz sortzean erreketak kontrolatua eta mailakatua lortzen da, keen sorrera gutxituz, egurra bakarrik alde batetik errez eta bere errendimendu maximoa lortuz.

Erbitik azaldu digunez, herriko basoko egurra erabiliko dute galdaran. Eta egur hori egiteko auzolanak deituko dituzte. Hala egingen ez balute kontzejuak egurra erosi beharko luke.

Beharra

Ihabardarrek udan auzolana egin zuten eta epaitza herrira ekarri ere. Baina egur hori galdaran erabiltzeko nahikoa lehor ez dagoenez, erosi behar izan dute.

Galdara berriak lau solairuko eraikina berotzen du: sotoan bajera dago; lehenengoan mediku kontsultategia eta liburutegia, bigarrenean artxiboa eta hiru gela eta ganboikoa hutsik dago. "Gure asmoa da, diru-laguntza badago, obra egitea eta berogailu solairuka pizteko aukera izatea. Orain denak batera berotzen baitira". 2.000 litroko ur biltegia arduratzen da guztia berotzeaz.

19.000 euro pasako inbertsioa izan da galdararena; Ihabarko Kontzejuak 13.000 euro jarri ditu eta gainontzeko 5.800 euroak Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza bati esker lortu du.

NUPetik Ihabarrera

Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP) herrietako hondakin organikoen bilketa, ekonomia zirkularra gakoa ikastaroa hartu zuen joan den ostegun eta ostiralean. Saioa teorikoaren ondoren, ostiralean, esperientzia ezagutzeko bisitak egin zituzten. Ihabarren auzo-konpostagunea eta hondakinendako ekarpen gunea ezagutu zuten. +www.guaixe.eus



©FEARESIDUOS



Larrañeta kalea, Lakuntzako Pertza elkartearen parean.

Udalak milioi bat euroko aurrekontua onartu du

Nafarroako Gobernuaren Toki Azpiegitura Planaren laguntzarekin Kañada, Mendigain eta Larrañeta kaleetako sareak eta zorua berrituko dira aurten. Urteko lan garrantzitsuena izanen den horrek 662.000 euroko aurrekontua izanen du

LAKUNTZA

Lakuntzako Udalak aurten 1.023.902 euroko aurrekontua izanen du. Joan den urtean baino 4.172 euro gehiago. Nafarroako Gobernuaren Tokiko Azpiegitura Planean onartutako lanak aparte utzita, aurrekontutik 115.200 euro inbertsioetarako izanen direla jakinarazi digu Patxi Xabier Razkin alkateak.

Udalak egingen dituen lanen artean dago kanpo santuan kolunbarioa berritzea eta gehiago jartzea, espazioa falta baita. Horretarako, 23.000 euro jarri ditu. Beste 21.000 euro Behar zana frontoiko lanei segida emateko izanen da. 2015etik, urtero-urtero, udalak diru sail bat bideratu du frontoian konponketak egiteko. Aurretik, kanpoko paretak iragazaiztu dituzte, teilatuko-hodiak aldatu... Aurten frontoia margotu eta teilatua konponduko dute. Eta frontoitik gertu dagoen parkeko itxitura ere aurten aldatuko da. Lan hori egin ahal izateko

10.000 euro aurreikusi ditu Lakuntzako Udalak.

Ohi bezala, dermioko bideak konpondu eta basoan itxiturak lanak egingen ditu. Gainera, kultur etxerako aulki berriak erosi eta musika eskolarako ere dirua bideratuko dute.


Liburutegia

Joan den urtean udalak liburutegia udaletxeko ganboikora igo nahi izan zuen eta horretarako 25.000 euro bideratu zituen. Baina, asmoa egia bihurtzeko, Europako diru-laguntza bat beharrezkoa zen eta ez zuten deialdirik egin. Aurten egingen duten zain daude. Laguntza jasoz gero 250 m² karratuko azalera liburutegiaz aparte, haurrentzako txokoa eta informatika gunea prestatuko lituzkete.

Kultur etxea "bizi-bizirik" dagoela eta horri eusteko asmoarekin segitzen du. Emakumezkoen txirridulari proba herrian mantentzeko ahalegina ere egin du, klub eta federazioarekin.

Kaleetako lanak

Kañada, Mendigain eta Larrañeta kaleetako sareak eta zola berritzeak 662.000 euro balio ditu. Haietatik Nafarroako Gobernuak 444.000 euro jarriko ditu, Sakanako Mankomunitateak 45.700 eta udalak 172.000 euro. Proiektua idazteko deialdia egin berri da eta lanak udazkenean hasiko dira.



Guraso izaten ikasteko propio sortutako eskola

Guraso Eskolan izena emateko epea gaur despiditzen da. Izena emateko telefonora 948 467 662ra hots egin

OLATZAGUTIA

Jakinik guraso izatea ez dela lan erraza, Akelarre udal ludotekak eta Altsasuko, Olatzagutiko eta Ziordiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak Guraso Eskola antola-

tu du. Gurasoei seme-alaben inguruan sortzen zaizkien beldurrei eta zalantzei aurre egiteko, edota guraso gisa ongi ari diren argitzeko. Horretarako da hain zuzen ere bi erakundeek antolatutako Guraso Eskola.

Urteko aurreneko sei hilabeteetan, hilabeteko saio bat iragarri dute, gehienetan hileko azken ostiralean izanen direnak: ilbeltzaren 26an, otsailaren 23an, martxoaren 23an, apirilaren 27an, maiatzaren 25ean eta garagarriaren 15ean. Saio guztiak Akelarre ludotekan izanen dira, 09:30etik 11:30era arte gurasoek euren zalantzak, beldurrak edo dena delakoak partekatu eta orientatzaile baten bidez egoerak bideratzeko gakoak jasoko dituzte.



Ornitologia ezagutzeko aukera

Olatzagutiko frontoiak II. Ornitologia Erakusketa eta Trukaketa hartu zuen igandean. 50 bat zaletuk ekarritako mila bat hegaztik bat egin zuten hitzorduan. Gipuzkoa eta Nafarroako Aralar-mendi ornitologia elkarte antolatzaileko bazkideenak izan ziren txori

gehienak, baina, Errioxa, Santander, Burgos edota Zaragozatik etorritako hazleak ere izan ziren. Jendearen joan-etorri etengabea euren kioletatik ikusi zituzten kolore guztietako kanarioak (haiek ziren nagusi), agapornis, loro txikiak, edota txorruak.



Kintoek asteazkenean hartuko dute atseden

Errege egunarekin Altsasuko kintoen buruak aukeratu zituzten. Erreginak eta erregeak honakoak izan dira: Sarabe Goikoetxea Mazkiaran, Kima Gallego Gartzandia, Tasio Merchan Fernandez eta Eneko Vera Sainz. XX. mendeko azken kinta 78 gaztek osatzen dute.

Hilaren 8an hasi diren jota, porrusalda eta zortzikoa dantzaten ikasteko ikastaroak. Ilbeltzaren 5ean, astelehenarekin hasiko dute ospakizuna. Asteartean segituko dute. Asteazkenean atseden hartuko dute eta ostegunetik larunbatera segituko dute.



Idareta eta batzordekideak. UTZITAKOIA

Idareta deontologia batzordeko buru izendatua

Gizarte-laneko Kontseilu Nagusiko Deontologia Batzordeak irurtzundarra bere buru izendatu du

IRURTZUN

Sortu berri da Espainiako Gizarte-laneko Kontseilu Nagusiko Deontologia Batzordea eta ostiralean elkartu zen estreina. Aurreneko bilera horretan, batzordea eratzearekin batera presidentea eta idazkaria aukeratu beharra zegoen. Eta lehen kargurako Francisco Idareta Goldarazena aukeratu izan zen. Irurtzundarra Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) Gizarte-laneko Departamentuko irakasle, Etika, Filosofia eta Zientziaren Metodologia ikerketa taldeko kidea eta departamentuko zuzendari-ordea da. Aipatu batzordeko kide lastailean izendatu zuten Idareta. Berarekin batera batzordea beste lau adituk osatzen dute.

Kontsultarako eta aholkularitza talde-organoa da batzordea. Bere egitekoa gizarte-lanaren Deontologia Kodeko baloreak eta oinarriak kontuan izanik etika eta deontologia profesionalaren gaineko irizpideak ematea da. Horretaz aparte, lanbidearen balioak eta oinarriak mantentzea, ogibidearen legitimazioa eta kolegio antolakuntza finkatzea, profesionalen praktika ona bermatzea eta deontologia profesionalaren kultura eta trebakuntza bulkatzea.



Trafiko ezbeharrak. ARTXIBOIA

Trafikoak 3 hildako sakandar utzi zituen 2017an

Euskal Herriko errepideetako istripuetan 88 lagun hil ziren 2017an, aurreko urtean baino 6 gehiago

2017ko trafiko datuei erreparatu, Euskal Herriko errepideetan jazotako istripuetan 88 pertsona hil ziren. Horietatik 28 Nafarroan, aurreko urtean baino 4 gehiago. Hildakoen artean, zoritxarrez, 3 sakandar daude. 2016an ere kopuru bera izan zen. Garilean motorra gidatzen zuen gazte irurtzundar batek istripua izan zuen Berriobeititik Ezkaba mendira igotzen ari zela; ezpondaren kontra jo eta hil egin zen. Eta beste bi sakandarrek irailean izan zuten istripuan hil ziren, A-1 autobian, Agurain parean. Aurrez-aurre jo zuten lakuntzar batek eta ziordiar batek gidatzen zuten autoek.

Altsasuko udaltzaina izateko oposizio deialdia egin dute

Altsasuko udaltzain izateko lanpostu bat betetzeko deialdia herenegun argitaratu zuen Nafarroako Aldizkari Ofizialak. Lanpostuan interesa duten pertsonen atzo hasita hogeita hamar egun naturaleko epea dute euren eskabideak Altsasuko udaletxean aurkezteko. Oposizioa martxoan hasiko da. Aurten beste plaza baterako deialdi bat egingen da.



Ekintzaileendako joan den urtean Cederna-Garalurren antolatutako saioa. UTZITAKOA

Cederna-Garalurrek 2017an 50 ekintzaile lagundu zituen

Ekintzaileei laguntza eta aholkularitza emateko zerbitzua erabiliz 23 enpresa sortu ziren

SAKANA

Nafar Lansarek finantzatzeko duen Nafarroa Ekintzailea sareko kide da Cederna-Garalur eta ekintzailetza sustatzeko zerbitzua eskaintzen du. Bere negozio ideia garatu nahi dutenek jo dezakete zerbitzu horretara eta han laguntza eta aholkularitza emanen diote.

Hala egin zuten joan den urtean 50 sakandarrek, 35 emakumezko (% 70) eta 15 gizonzko (% 30). Cederna-Garalurren zerbitzuan artatutako pertsonen artean 23 enpresa sortu ziren eta, ondorioz, 27 pertsonak alta eman zuten urte osorako langile autonomoen araubide berezian. Sortutako negozio berrien forma juridikoari dagokionez, Garalurretik jakinarazi dute 21 banakako enpresariak direla eta beste bi negozioak sozietate irregular gisa eratu direla.

2016an 41 ekintzaileeri (21 gizonzko eta 20 emakumezko) lagundu zieten eta 21 enpresa sortu zituzten 28 autonomo alta emanez (16 emakumezko eta 12 gizonzko).

Ekintzailetza bulkatzen

Garalur joan den urtean zehar bi urtetik beherako antzinatasuna duten 26 enpresari laguntza eta aholkularitza eman die. Bi urte baino gehiagoko ibilbidea duten beste bederatzirentzat enpresek zerbitzu bera jaso zuten.

Urtero moduan ekintzaileak ikastetxeetara eramanez dituzte, ikasleek haien esperientziaren berri lehen eskutik jaso zezaten.

Aldi berean, Garalur ibarreko esperientzia ekintzaileen zabalpen eta dinamizazioan lagundu du. Gainera, Nafar Lansarek eta beste erakunde batzuek ekintzailetzari lotutako beste ekitaldietan parte hartu du ere.

Ekintzaile eta autonomoei zuzendutako hiru saio ere prestatu zituen Cederna-Garalurrek 2017an: nola antolatu zure agiriak zerga-betebeharrak betetzeko; nola diseinatu zure fakturak zerga-betebeharrak betetzeko eta ekintzailetza praktikoa turismo-sektorearendako, bi Arbizun eta azkena, berriz, Antsoainen.

Ekintzailetza zerbitzua

Cederna-Garalurrek Sakanako egoitza Arbizuko Utzubar industrialdeko Utzugane garapen gunean du. Handik ibar guztirako zerbitzua eskaintzen du. Haiekin harremanetan jartzeko astegunetan, 08:00etatik 15:20era, pasa daiteke egoitzatik. Ekintzailetza zerbitzuan, hitzordua eskatuta, Altsasun astelehenean ematen dute laguntza eta aholkularitza. Garalurrekin harremanetan jartzeko 948 567 010 telefonoa eta sakana.admon@cederna.es e-posta erabil daitezke.



Makina bat altsasuarrek aste honetan edukiontzia mustu dute.

479 etxebizitzak mustu dute 5. edukiontzia

Altsasuko hondakinen gaikako bilketa egungo % 28tik % 65era pasatzeko materia organikorako bosgarren edukiontzia jarri da Altsasun. Herrian barna banatutako 80 bat edukiontzitan atzo 740 kilo materia organiko jaso ziren

ALTSASU

Sakanako Mankomunitateko Hondakinen Zerbitzuak estreinakoz atzo jaso zuen 5. edukiontzian, marroian, zegoen materia organikoa. "Pozik gaude, etxebizitza kopuru egokia da bilketa hasiera emateko" esan digu Xabier Lopezek, zerbitzuko teknikariak.

Izan ere, atzora arte Altsasuko 2.260 etxebizitzetatik 479ek, % 21,19k, emana zuten izena bosgarren edukiontzia bidez materia organikoa jasotzeko. Aurretik beste 188 etxebizitzatan konposta egiten dute. Gainera, Otadiko eta Idertzegaingo auzo-konpostagailuak 55 etxek erabiltzen dituzte (azken horretan izena eman daiteke). Horiekin materia organikoa bereizten duten etxe altsasuarren kopurua 722ra igo da, hau da, % 31,94.

Helburua

Sakanako Mankomunitateak eta Altsasuko Udalak sinatutako hitzarmenaren arabera urte

akaberarako Altsasun sortzen diren hondakinen % 65 gaika bildu nahi dituzte. Marka hori lortzeko ezinbestekoa da materia organikoa banatuta jasotzea, etxebizitzetan sortzen diren hondakinen % 40 pasa delako.

Bi administrazioek jarritako erronka betetzeko Altsasuko 2.260 etxebizitzetatik % 60k gutxienez bereizi beharko luke.

Ostegunak eta telefonoa

Gaikako bilketa batu nahi dutenek 900 730 450 doako telefonora hots egin dezakete. Bestela, Hondakinen Zerbitzuko hezitzaileak Baratzeko bide plazako lokomotoran izanen dira ilbeltzeko ostegunetan, 10:00etatik 13:00etara. Informazioarekin batera 5. edukiontzia erabiltzeko kit-a jaso daiteke han.



etxeko aseguruetan
%45 era
arteko
deskontuak

eta, gainera, ebetresna
elektrikoak konpontzeko zerbitzua DOAN



MAPFRE ALTSASU

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 behekoa • ALTSASU • 948 563 354



Madrilgoa astelehenean 18:00etan Mank-en egoitzan aurkeztuko dute.

Sakanako bi egitasmo aurkeztu dituzte Madrilgo Fiturren

Ibarreko 18 xenda jasotzen dituen mapa eta Dastatu Sakana marka aurkeztu zituzten atzo arratsaldean

SAKANA

Nazioarteko Turismo Azokaren 38. edizioak atzo zabaldu zituen ateak Madrilan eta igandera arte hala izanen ditu. Lurraldearen sustapena egiteko Nafarroako Gobernuak standa jarri du azokan, zeinetan Donejakue bidea den protagonista. Baina horrekin batera egunero hainbat aurkezpen hartuko ditu standak. Esaterako, atzo 18:00etan Sakanako Garapen Agentziako turismo eta elikadura arduradunek egin zutena.

Lehenak, Paki Urbitartek, Sakanako xenden maparen berri eman zuen. Joan den urtean, toki berean Sakanako ibilbideen planaren berri eman bazuten, aurten "xenda horien mapa kartografiko turistikoa aurkezttera goaz. Nahi baino gehiago luzatu zaigu mapa egin ahal izatea baina listo, prest dugu jada", azaldu digu Urbitartek. "Zabaldu

daitekeen mapa kartografikoa da, zeinetan ibarreko 18 ibilbide jaso diren, eta bakoitzari buruzko beharrezko informazioa ematen duen".

Oskia Gorostiagak, berriz, Dastatu Sakana marka aurkeztu zuen. "Tokiko produktua hartzen duen marka da eta ibarreko lehen sektoreari balioa eman nahi dio". Esku-orri batean zuzeneko salmenta egiten duten ekoizleen berri ematen da, "eta, aldi berean, gastronomia produktuen erakusgaia bada ere". Azalpena Sakanako produktuen dastatzearekin despedituko da.

Arakil kide den Plazaola turismo batzordea ere Fiturren da. Plazaolako bide berdearen gidaliburu berria eta bide mapa berria aurkeztuko dituzte. Horrekin batera, 2006tik martxan den Iturraskarri proiektuaren bide-mapa ere aurkeztu dute Fiturren.

Sanantondarren asteburuko hitzorduak

San Antonen omenez sortutako kofradietatik lau iritsi dira gaur egunera eta asteburuan ospatuko dute euren eguna. Mandazainek eta aberekin lan egiten zutenek sortu zituzten elkarte horiek eta urtero ilbeltzean elkartzen dira

DORRAO / BAKAIKU / ITURMENDI / URDIAIN

Asteazkenean, hilaren 17an, izan zen San Anton, animalien eta abeltzainekin eta aberekin zerikusia duten lanbideen babeslea. Sainduaren izena duten Sakanako lau kofradiek euren eguna asteburuan ospatuko dute. Garai batean, Burundan mandazain asko ibili zen karretoan, lehengaien garraioan, Pasaiatik Zaragozara eta penintsulako beste puntu askotara ere. XVII. mendetik aurrera ezarri zen ekonomia jarduera garrantzitsu hura XIX. mendera arte indarrean izan zen. Eta jardunarekin batera sortu ziren Burundako kofradiak. Batzuek eta besteek elizkizunetan hildako kofradeak gogoratuko dituzte eta ardurak berrituko dituzte.

Dorrao

Sakanako San Anton kofradia gazteena da Dorraokoa, 1923koa. Bere arduradunak ere lanean hasten lehenak dira. Izan ere, Itur aldea elkartean elkartuko dira, biharko gosaria prestatzera, eta, bide batez, afaltzera. Larunbatean 09:00etan dute hitzordua jarrita elizan. Hildako kofradeen aldeko mezaren ondoren, priorearen edo kofradiako buruarien etxean haiendako erresponsua errezatuko dute. Behin elkartean, zozketa bidez, kofradiako karguak berrituko dira. Egitekoak despedituta gosalztera eseriko dira. Eta bazkaldu bitartean, batzuk mahai jokotan ariko dira.

Bakaiku

Sanantondar bakaikuarrak larunbatean elkartuko dira. Gaur egun kofradiak 90 bat kide ditu. Haiak guztiak eguerdian izanen den elizkizunera deituta daude. Handik atera eta, urtero moduan, talde argazkia egingen dute. Po-teoan ibili ondoren, 54 kofrade izanen dira Bakarrekotxea



Iturmendiko sanantondarrak biltzen azkenak izanen dira, igandean. ARTXIBOA

DORRAKO, BAKAIKUKO ETA URDIAINGOAK BIHAR ELKARTUKO DIRA ETA ITURMENDIKOA ETZI

elkartean bazkaltzera elkartuko direnak. Bakaikuko San Anton kofradiako buru edo maiordomo Francisco Javier Negrinek akta jasoko du erakundearen liburuan, 1.715. urtetik osatzen ari direna. Han kofradian izena eman berri dutenen eta hildakoen berri jasoko du. Baita kargu berritzeak ere. Izan ere, Negrinen laguntzaile edo belero izandako Iñaki Saez de Adana buru izatea pasako da eta laguntzaile berri bat aukeratu beharko dute

Iturmendi

Domekan elkartuko dira San Anton kofradiako kide iturmen-diarrak. Eguerdian mezara joan dira euren estandartearekin. Behin elizkizuna despedituta apaizetxean elkartu eta batzarra egingen dute, kofradiaren kontuak argitu, kideen altak eta bajak eta kofradiaren ardurak bana-

tzeko. Kofradia 1690ean sortu zen eta orduetik urtero urtero gorabeherak akta liburuan jasotzen dituzte. Hura despedituta, hildako kofradeen aldeko erresponsua errezatu ondoren Aritzaga elkartera joanen dira, han bazkaria baitute.

Urdiain

Urdiaingo sanantondarrak larunbat eguerdian elkartuko dira elizan, hildako kofradeen aldeko elizkizuneari. Garai batean eliz atean animaliak bedeinkatzen baziren, bihar, mezaren ondoren apaizak eliz atetik herriko soroak eta aberean bedeinkatuko ditu. Ondoren, kofradeak elkarrekin San Anton kanta abestuko dute.

Eliz atekoak egin ondoren, aldamenean dagoen Tintinurri elkartean gosalduko dute Urdiaingo San Anton kofradiako kideak. Segituan herriaren etxera joko dute 1691n sortutako kofradiaren batzarra egiteko. 14:30ean Aitziber elkartean bazkaria izanen dute. Eta, ohitura segituz, kofradiako ardura utzi eta hartu duten lau kideen etxeetara erronda egitera joanen dira arratsaldean.





Alkatea aurreko bilera batean. ARTXIBOA

Irurtzundarrak iritziak ematera gonbidatuta

Bihar parte hartze bilerak udaletxean: 11:00etan gaztelaniaz eta 12:00etan euskaraz

IRURTZUN

Hirugarren urtez jarraian Irurtzongo Udalak herritarrak euren guztien etxera, udaletxera, gonbidatu ditu eta Irurtzunen egoe-rari buruz eta Irurtzunen hobetzeko dituzten proposamenak egiteko aukera izanen dute. Aitor Larraza Carrera alkateak azaldu duenez, "herritarren iritzia jakin nahi dugu". Biharko bileren zergatia ere gogorarazi digu alkateak: "udalak irurtzundarren parte hartzea bulkatu nahi du". Helburua da "udaletxearen atea herritarrentzat zabalik egotea" eta, aldi berean, "parte-hartze demokrazian urratsak ematen segitzea". +www.guaixe.eus



13:00tan auzatea aterpean. ARTXIBOA

San Sebastianen omenez olaztiarrak elkartuko dira

Portuko kalearen akaberan, Urbasa etorbidearen aldamenean, San Sebastian ermitan eta bere inguruan, mugimendu berezia izanen da bihar. Ermitako titularraren eguna ospatuko dute bertako auzotarrek eta olaztiarrak.

Hileko lehen larunbatean elizkizunetarako zabaltzen da ermita urtean zehar. Baina bihar bitan zabalduko ditu ateak erlijio eraikinak. Aurrena eguerdian, San Sebastianen omenezko meza iragarria baitago. Bigarrena, 17:00etan, arrosarioa erreztatzeko. Bien ondoren, zer dastatu izanen da ermitako estalpean. Eguerdian, 13:00etan, auzatea izanen da aterpean eta arratsaldean, berriz, txokolatjana eta erroskilak, 17:30ean. San Sebastianen omenezko ospakizunak despeditzeko trikitalariek alaitutako auzatea izanen da frontoian 20:00etan. Ohi bezala, Olatzagutiko Udalak ardoa eta gazta banatuko ditu hara gerturatzen direnen artean.

ARALAR
FERRETERIA • BURDINDEGIA
LAKUNTZA
1000 m. 15. urtean
948 404 300
administracion@aralarferreteria.com
Ongi pasa festetan!

Neguko festak ospatuko dituzte asteburuan Lakuntzan

San Sebastianen omenezko ospakizunetarako egitarau zabala prestatu da, lakuntzarrendako eta bisitariendako

LAKUNTZA

Gaur hasi eta igandea bitartean San Saastin festak ospatuko dituzte Lakuntzan. San Sebastian eguna bihar da eta larunbat eguerdian asko izanen dira Aldaban dagoen ermitara erromerian joanen diren lakuntzarren. Eta arratsaldean, atzera ere, alkate-dantza dantzatzeko dute gazteek. Baina aurretik, gaur, piperpropilik onenak norenak diren jakinen da eta gauerdian danbor hotsez beteko da plaza, Lakuntzako Pertza elkartearen 28. danborradan. Ohi bezala



San Saastin ermitara erromerian piperpropilik banatzen dituzte. ARTXIBOA

San Saastin festen egitaraua

Gaur 19, bezpera

- **18:30** Piperpropilik udaletxean utzi.
- **19:00** Txupinazoa. Ondoren, txokolate-jana, gurasoek eskainita..
- **19:15** Piperpropil txapelketa.
- **19:30** Buruhandiak.
- **20:00** Auzatea.
- **20:00** Dantzaldia Elebitan-ekin, plazan.
- **21:00** Zezensuzkoa.
- **24:00** Danborrada, plazan.
- **01:00** Dantzaldia Elebitan-ekin, plazan.

Larunbata 20, San Sebastian

- **07:00** Aurora.
- **11:00** Erromeria San Saastin ermitara.
- **12:00** Meza ermitan.

- **13:00** Auzatea, Lakuntzako Pertza elkartek eskainia.
- **17:00** Sakanako Pilota Txapelketako finalak.
- **18:15** Danborrada txikia, plazan.
- **18:30** Elai Alai dantza taldea plazan.
- **19:00** Alkate dantza.
- **19:30** Buruhandiak.
- **20:00** Dantzaldia Oharkabe taldearekin.
- **20:00** Auzatea.
- **21:00** Zezensuzkoa.
- **24:00** Dantzaldia Oharkabe taldearekin.

Igandea 21

- **11:00** Puzgarriak pilotalekuan.



- **12:30** Erraldoi eta buruhandien irteera.
- **13:00** Auzatea.
- **13:30** Aizkolariak, plazan.
- **16:30** Puzgarriak pilotalekuan.
- **19:00** Amets Bide dantza taldea eta Oroith abesbatzaren ikuskizuna plazan.
- **19:30** Buruhandiak.
- **20:00** Auzatea.
- **20:30** Zezensuzkoa.

Aliprox
Larrañeta z/g LAKUNTZA
948 576 246
Ongi pasa festetan!

KALE TXIKI TABERNA
Ongi pasa festetan!
Menua 11€
Asteburuko menua 25€
Lakuntza
Telf: 948 57 60 09

Ongi pasa festetan!
OGI BERRI
APUR LAKUNTZA
Mikel Arregi 7 - Lakuntza
669 426 335
iraxxo@hotmail.com

Ongi pasa jaiak!
LAGUNARTEA TABERNA
LAKUNTZA

NEREA
ILEAPAINDEGIA
asko gozatu festetan!
NEREA BAKAIKOA
Ermiñeta kalea 4 • 948 567 331
LAKUNTZA

CARNICERIA I. ARREGUI
HARATEGI ETA URDAITEGIA
Sakanako hiltegiaren hildako haragia
Ongi pasa festetan!
Etxeko obradorea: tripota • tripotxa • mihia • kalluak • saltxitxak • frituak
948 576 067 • Herriko plaza z/g • LAKUNTZA

AHT ibilbide proiektua jendaurreko epean

Alegazioak aurkezteko epea otsailaren 28ra arte dago zabalik. Ingurumen arlokoa ere bada zabaldu berri den jendaurreko informazio epe hori. Herritarrek eta erakundeek dute alegazioak aurkezteko aukera

SAKANA
Espainiako
Aldizkari Ofizia-
lean *Kantauri-Medi-
terraneo tren korridore
proiektuaren informazio iker-
keta, Iruñea eta euskal Yaren
arteko zatia* publikatu zen asteartean. Proiektuaren jendaurreko informazio epea herenegun hasi eta hilabete batez, otsailaren 28ra arte, izanen da zabalik. Bitarte horretan, egoki jotzen duten pertsonak ibilbidea aztertu dezakete, ibilbideari buruzko alegazioak egin ditzakete. Alegazioak hona bidali beharko dira: Tren Planifikazio Zuzendariordetza Nagusia, Plaza de los Sagrados Corazones, 7, 28071 Madril. Eta beti ere Iruña eta euskal Yaren informazio publikoa erreferentzia eginez.

Joan den astean aurkeztutako proiektuari buruzko dokumentazio guztia sarean jarri dute. Gainera, estatuen Iruñeko (Merinal-

d e e n plaza) eta Gasteizko (Olagibel, 1) gobernu ordezkariartean ere kontsultatzeko aukera izanen da, egun baliodunetan, bulego ordutegian. Bestalde, herenegundik aurrera proiektuak ukitutako eremuetan administrazioek hirigintza alorreko erabakiak urte batez bertan behera utzi beharko dituzte.

Iritziak

Nafarroako eta Euskal Autonomia Elkarte alderdi sozialistak eta Idoia Mendiak, bilera egin zuten herenegun Iruñean. Hizketa -

gaien artean Prestazio Handiko Trena izan zuten. Haien iritziz Nafarroako Gobernuak Madrilgoarekin hitzarmen bat edo kudeaketa mandatu bat izan beharko luke, "gobernuari ematen diren pausoak kontrolatzea ahalbidetuko lioke, lanak arinago eta azkarrago egiteko". Eusko Jaurlaritzak kudeaketa mandatu hori darabilela eta "formula hoberena" dela gaineratu zuten. Chivitek eta Mendiak tren azkarra "lurralde kohe-

siorako tresna" dela gaineratu zuten.

PPNko presidente Ana Beltran adierazi zuenez, BOEn argitaratutakoa, "Sustapen Ministerioaren, Espainiako Gobernuaren eta PPren Nafarroarekiko konpromisoa sendoa, jarraitua eta ziurra denaren erakusle da".

Merkantzia korridorea

Sustapen Ministerioak herenegun jakinarazi zuenez, Europako Batzardeak onartu du Merkatzien Atlantikoko


Tren Korridorea Iruñean barna Zaragozaraino luzatzea. Hau da, Sakanan barna. Eskaera hori Alemaniak, Espainiak, Frantziak eta Portugalek egin zuten joan den urte hasieran.

Sustapen Ministeriotik azaldu dutenez, erabakiak "korridorearen hasierako definizio hutsunea konpontzen du". Ministeriotik gaineratu dutenez, "ibilbidearen luzapenaren beste abantaila bat da bai Iruñeak bai Zaragozak merkantzia hartzaile gune gisa ikus-



Proiektuaren dokumentazioa

Informazio gehiago lortu ahal izango duzu Sustapen Ministerioaren webgunean.



garritasuna eta aitortza lortzen dute Europan".

Europako garraio politikaren helburu nagusietako bat da kontinentean tren bidezko merkantzia sarea sortzea. Horren zati da Atlantikoko korridorea, 2013ko azarotik indarrean dena. Korridorea aipatu lau herrialdeetako tren azpiegitura administratzaileek kudeatzen dute. Europako tren bidezko merkantzia garraioa kontratazko leihatila bakarra Madrilen dago.

Ibilbidea argazkitan

Sustapen Ministerioak Abiadura Handiko Trenaren (AHT) Iruñea eta Gasteiz arteko lotura Sakanan barna egin nahi duela jakinarazi zuen joan den astean. Joan den urtean Guai-xek egindako mapa argitaratu bagenuen, gaurkoan Sustapen Ministerioaren proiektuan jasotako ortofotoak eta

habetan zirriborratutako ibilbidea ekarri ditugu.

Baina gauza bat da mapa ikustea eta bestea ibilbidea bera bertatik bertara edo irudietan ikustea. Horregatik, Guaixetik proposamena egiten dizugu irakurle: zure herritik, edo ingurutik, AHTko aurreikusitako ibilbidea pasatzen bada, argaz-

kia ateratzea, guri bidaltzea, www.guaixe.eus web orriaren bidez. Dagoeneko batzuk jaso ditugu. Guztien artean Sakanako AHTren balizko ibilbidearen argazki albuma sortuko genuke.



Gartzia Ximenez errege izendapena gogoratzera

San Pedro zelaietan Nafarroako aurreneko erregea aukeratu zutela 1301 urte beteko dira larunbatean. Herri ekimen batek ekitaldi xumea antolatu du biharko, 17:00etan. Efemeridean burundarren senidetasun egun baterako aukera ederra dela uste dute

URDIAIN / ALTSASU

San Pedro ermitako ateburuan jartzen duenez, 717ko ilbeltzaren 20an gertaera historikoa izan zen han: 600 gizonen artean, Nafarroako aurreneko errege gisa aukeratu zuten Gartzia Ximenez. Berdinen arteko aukeraketa izan zen eta ez "jainkoaren graziaz" beste monarkia batzuen hasieran bezala.

Efemeridea gogoan, Marcos Alvarez Basartek eta Juanma Galanek urteurrena gogoratzeko ekitaldia antolatu zuten joan den urtean eta 30 bat pertsonak egin zuten deialdiarekin. Aurtengo deialdi bera egin dute eta 2017ko egitarau berarekin: erregearen aukeraketaren berri ematen duen Gregorio II.a Aita Santuaren 717ko agorriaren 30eko bulda irakurri, topa egin eta talde argazkia egin.

Nahia

Biharko deialdia egin duen bikotearendako "legenda ospatzea



San Pedro ermitan. ARTXIBOA

zerbait polita eta alaia izan behar luke. Burundarren arteko senidetze egun modukoa". Antolatzaileren iritziz bai nafarrendako bai burundarrendako egun garrantzitsua behar luke ilbeltzaren 20a, "Urdiainen eta Altsa-

suren, gure herrien historian egun aipagarria da".

Antolatzailak joan den urtean ekitaldia antolatzeko beste modu baten bila hainbat ate jo zituzten. "Altsasuko Udaleko Historia Memoriako Batzordearen esku gelditu zen ekitaldian parte hartu zezaketen taldeen edo elkarrekin zerrenda egitea eta ospakizunaren plangintza eta programazioa osatzea", esan digu Galanek, gaineratuz: "elkarrekin gogotsu zeuden, aurreko egunetan egitaraua antolatzeko ere. Zain gaude". Azaldu digunez, Covadongan halako mitoa dute ere eta Asturiaseko Gobernuaren laguntzaz gogoraraziko dute.

Eurek ere halako oroitzapen egun duin bat nahi lukete. Horregatik, "udalek ondare hori zaindu eta bermatu behar dute, belaunaldi berriek ezagut ditzaten", gaineratu du Alvarezek, "herritarrekin hartutako udalaren gizarte konpromisoaren zati da".

Etxarriko ihoteak ostegunean hasiko dira

Astearteiyote aurreko hiru ostegun iluntzeetan ihote ospakizunak izanen dira herrian

ETXARRI ARANATZ

Jende askoren galdera da zergatik Etxarri Aranazko ihoteak astearteiyotea baino lehenago ospatzen diren. Horretarako eliza katolikoak indar handia zuen garaietara jo behar da. Liturgia egutegian garizumak garrantzi handia zuen. Penitentziekin eta barauekin lotzen zuten herritarrek eta, horregatik, garizuma aurreko garaia, iyoteak, gogoz ospatzen zuten puska biltzeekin, txatarrez jantziz, musika, dantza eta abarrek. Elizak garizuma prestatzeko aurreko hiru igandeak hartu zituen eta etxarriarrek erabaki zuten igande horien aurreko ostegunetan festa egitea.

Iyote egutegia

Gizakundek zabaltzen du Etxarriko iyote egutegia heldu den ostegunean. Garai batea gizon helduen eguna zen. Mozorrota, hau da, txatarraz jantzita eskean ibiltzen ziren. Bigarren ostegunean emakumezkoen eguna zen eta haiek ere eskean aritzen ziren. Andrekunde eguna aurten otsailaren 1ean izanen da. Bi egun horietan kintoak eskean ibiliko dira. Gainera, otsailaren 1ean hainbat familietan emakumezkoen afariak egingo dira. Lagunak ere, propio, afaltzera elkartzen dira.

Otsailaren 8a Garikunde da. Garai batean gazteen arteko borrokako eguna zen. Kolpeak debekatuta zeuden urte guztian eta egun hartan gorabeherak konpontzeko eguna zen. Kontrakoa lurraren kontra eustean zetzan borroka, kolperik gabe. Haizez betetako maskuriekin jendeak jotzen eta suko hautsaz zikintzen ibiltzen ziren.

Zalduniyote edo haurren eguna otsailaren 11n izanen da eta errondan ibiliko dira. Astearteiyotean mozorrota eta afariak izanen dira.

Intxostiapuntara joateko 10 arrazoi, gutxienez

Gazteendako 10 zerbitzu eskaintzen ditu Intxostiapunta Gaztegunek, doan

ALTSASU

Altsasuko Udalak sustatutako Intxostiapunta Gaztegunek zerbitzu bikaina eskaintzen die gazteei, doan. Eskaintzen dituen zerbitzu guztien berri emateko kartela publikatu du Gaztegunek, *Intxostiapunta, parte hartzeko 10 arrazoi* lelopean.

10 zerbitzuak

Intxostiapunta, lehenik eta behin, 12 eta 30 urte bitarteko gazteendako doako aisialdi zerbitzua da. Bigarrenez, lagunekin biltzeko toki aproposa da, eta lagun berriak egiteko aukera eskaintzen du. Hirugarrenik, hezkuntza espazioa ere bada. Mota guztietako ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak eta bestelakoak antolatzen dituzte. Laugarrenik, gazteek erabakitako ekintza guztiak jar ditzakete martxan: txapelketak, txangoak, kontzertuak... Entseatzeko tokia eskaintzen die gazteei. Bosgarrenik, Sexgune zerbitzua dute gazteek eskura, sexualitateari buruzko aholkularitza konfidentziala. Seigarrenik, zibergela dauka eta WIFI irekia. Zazpigarrenik, ikasteko gela bat dago Intxostiapuntan, gazteek eroso ikas dezaten.

Zortzigarrenik, beste zerbitzu interesgarri bat eskaintzen du: Informazio-Gunea. Denetarikoa informazioa jasotzeaz gain, gazte txartelak, garraio-txartelak eta beste tramitatzen dira.

Bederatzigarrenik, Intxostiapuntako gelak eta zerbitzuak utzi egiten zaizkie gazteei, aurretik eskatuz gero: sukaldea, erabilera anitzetarako gelak, musika-entseguetarako gelak...

Bukatzeko, Erasmus + programa interesgarriaren berri ematen da, Europako boluntariotzaren eta auzolandegien ingurukoa. Programa honi buruzko aholkuak eta informazioa jasotzeko aukera dute gazteek, eta, horretaz gain, bidaiteka zerbitzua dute, bidai aukerak aztertzeko.

Udal idazkari berria lanean hasi da Arbizuko udaletxean

Urtetan Arbizuko udal idazkari izan zen Angel M^a Lag Amirola abenduaren 22an jubilatzen. Haren ordezkaria lortzeko Arbizuko Udalak premiazko deialdia egin behar izan zuen, bai udalaren bai Nafarroako Gobernuaren lan-poltsetan izena emanda zeuden pertsonak plaza hartzeri uko egin ziotelako.

Arbizuko Udalaren deialdiari hamaika hautagaik erantzun zioten eta prozesu osoaren akaberara lau iritsi ziren. Aurreneko postuan gelditu zenak plazari uko egin zionez, bigarren gelditu zen Itziar Etxegarai Ugarte da Arbizuko udal idazkari berria. Abenduaren 26an hasi zen lantoki berrian lanean



UTZITAKOA

100. urtebetetzea

Tiburtzio Marin Mozok 100 urte bete zituen astelehenean. Unanuarra sortzen, Lakuntzan bizi da eta herriko udalak, ohitura den bezala, bixita egin zion bere urtebetetzen egunena. Patxi Xabier Razkin alkatea joan zitzaion etxera. Urteurren opari gisa Miren Ustarroz eskultoreak egindako Pikotaren eskultura bat oparitu zion.



Irurtzun klubekoak. PILOTAREN TXOKOA

PILOTA Irurtzun Kluben Arteko Torneoko finalerdietara

Pilota Kluben Arteko Torneo Nazionaleko final laurdenetan Irurtzunek Zaramaga hartu zuen menpean (3 eta 0) eta Hernanik egungo txapelkun Aurrera Tolosa bidean utzi zuen (3 eta 0).

Irurtzun eta Zaramagaren arteko lehian, lau t'erdian Alberto Ongayk (Irurtzun) 18 eta 8 irabazi zion Larrañagari eta buruz buru, Olanok (Irurtzun) 18 eta 14 Ibañezi. Binakakoan, Lansalotek eta Bergerak (Irurtzun) 22 eta 18 hartu zituzten menpean Rafael eta Cecilio. Horrela, lehen finalerdia jokatuko dute Irurtzunek eta Hernanik ilbeltzaren 28an, Tolosan. Beste final laurdenetan, Zazpi Iturrik Erreka izango du aurkari eta Lemoak Buruzgain.

PILOTA Bakaikoa Etchegoinekin ari da Promoziokoan

Joanes Bakaikoa etxarriarra da Promozioko Binakakoan dugun ordezkari sakandar bakarra. Etxarriarrak Etchegoin du bidaide 2. mailako Binakakoan. Bi jardunaldi jokatu dituzte; lehenengoan Peña II.ak eta Erasunek 22 eta 15 irabazi zieten Bakaikoari eta Etchegoini eta larunbatean, Bilbon, Errandoneari eta Tolosari tanto eskasatik irabazi zieten Bakaikoak eta Etchegoin ordezkatu zuen Urretabizkaiak, 21 eta 22.

Bihar, larunbatean, Labriten, 17:00etan (ETB1) Bakaikoa eta Etchegoin Agirreren eta Iturriagaren kontra ariko dira. Ea etxarriarrak eta Etchegoinek bigarren puntua lortzen duten.



Gutzira hamaika final jokatuko dira bihar Arbizon eta Lakuntzan.

Nortzuk dira Sakanako pilotari onenak?

PILOTA Bihar jokatuko dira XXX. Sakanako Pilota Txapelketako finalak, 16:00etatik aurrera Arbizon eta 17:00etatik aurrera Lakuntzan. Sari ematea Lakuntzan izanen da. Gutzira 112 pilotari sakandar lehiatu dira aipatu txapelketan

Sakanako 6 pilota klubek antolatuta, XXX. Sakanako Pilota Txapelketa jokatzen ari da. Helburua Sakanako klubetan trebatzen diren neska-mutikoei txapelketa batean aritzeko aukera ematea da. Abenduko lehen asteburuan hasi zen txapelketa, eta, ordutik, astebururo partidak izan dira Lakuntzan, Olaztin, Arbizon, Irurtzunen eta Altsasun.

Gutzira 112 pilotari lehiatu dira, Olaztiko Sutegi, Altsasuko Pilotajauku, Etxarri Aranazko Gure Pilota, Arbizuko Aldabide, Lakuntza Pilota Elkarte eta Irurtzun taldekoak

Sakanako Pilota Txapelketa azken txanpara iritsi da, bihar finalak jokatuko baitira, Arbizon, 16:00etatik aurrera, eta Lakuntzan, 17:00etatik aurrera. Sari

banaketa San Saastin festetan murgildua dagoen Lakuntzan egingen da. Gutzira 11 final jokatuko dira: txikiak (4 biko lehiatu dira), umeak 2 (5 biko), umeak 1 (4 biko), kimuak 2 (14 biko), kimuak 1 (9 biko), haurrak 2 (4 biko), haurrak 1 (3 biko), kadeteak 2 (3 biko), kadeteak 1 (2 biko), jubenilak (6 biko) eta nagusiak (2 biko).

Sakanako Txapelketako finalak

Arbizon, 16:00etan

Txikiak: Gurmindo-Sarazibar (Sutegi) / Beloki-Olaetxea (Irur)

Umeak 2: Lizarraga-Etxeberria (Irur) / Etxabarri-Razkin (Aldab)

Kimuak 2: Etxeberria-laben (Irurtzun) / Okiñena-Amiano (Irurtzun)

Kimuak 1: Igoa-Azpeitia (Pilotajauku) / Markina-Martiarena (Irurtzun)

Haurrak 2: Arretxe-Razkin (Aldabide) / Ortiz-Ezkurra (Irurtzun)

Kadeteak 2: Cidoncha-Agirretxe (Pilotajauku) / Ramiro-Estanga (Aldabide)

Lakuntzan, 17:00etan

Umeak 1: Nagore-Eskudero (Irur) / Zubiria-Olarrak (Aldab)

Haurrak 1: Garmendia-Imaz (Aldabide) / Baztarrika-Lakuntza (Aldabide)

Kadeteak 1: Goikoetxea-Gorrotxategi (Aldabide) / Imaz-Lizarraga (Aldabide)

Gazteak: Olaetxea-Araña (Aldabide-G. Pilota) / Otxoa-Berastegi (Aldab-G. Pilota)

Nagusiak: Nazabal-Arbizu (Irurtzun) / Goikoetxea-Petriati (Aldabide)

Ezkurdia-Zabaleta vs Altuna III.a Martija: zer gertatuko zen atzo?

PILOTA Atzo Binakako Pilota Txapelketako 9. jardunean sakandarrek elkarren kontra jokatu zuten, Mungian

Atzo Binakako Txapelketako 9. jardunaldiko lehendabiziko partida jokatu zen, Mungian. Liderrek, Altuna III.ak eta Julen Martijak (6 puntu), 3 punturekin txapelketa gorabeheratsua egingen ari diren Ezkurdia eta Zabaleta izan zituzten kontrario. Guaixea isterakoan oraindik ez genuen emaitzaren berri, baina partidara egoera oso ezberdinean iritsi ziren sakandarrak. Altuna eta Martija Lasori eta Albisuri 22 eta 13 irabaziz eta txapelketako lider, 6 punturekin. "Bere lehen-

dabiziko torneo izateko, harrituta nago Martijak duen heldutasunarekin. Asko lagundu nau" adierazi zuen Altunak. Txapelketa itzela egingen ari da Etxeberrikoa.

Ezkurdiak eta Zabaletak, aldiz, ibilbide gorabeheratsua darabilte. Larunbatean Elezcano II.aren eta Rezustaren kontra aritu ziren euren alde zegoen Labrit pilotalekuan. 16 eta 11ko alde izatera iritsi ziren sakandarrak, baina Elezkanok eta Rezustak partidari buelta eman zioten. 21eko berdinketan, Ez-



Altunak eta Martijak txapelketa ona egingen ari dira. UTZITAKOIA

kurdiak bolea huts egin zuen eta partidak ihes egin zuten.

Ez dakigu atzoko lehian zer gertatu zen, baina Ezkurdia eta Zabaletak Altunak eta Martijak baino askoz gehiago zuten jokoan, txapelketari eustea, hain

zuzen ere. 9. jardunaldiko gainontzeko partidetan, Bengoetxea VI.ak eta Larunbek Elezcano eta Rezusta izango dituzte aurkari, Urrutik eta Zabalak Irribarria eta Merino eta Olaizola II.ak eta Imazek Laso eta Albisu.

Elurraren egunerako izena ematea zabalik

ESKIA Urbasan izango da, elurra dagoenean Mankomunitateak zehaztuko duen egunean. Ipar eskia eta elur-erraketen ibilbideak egiteko aukera, musherren erakustaldia eta beste. Elurbusa ere antolatuko du Mank-ek

Elurra egiten duenean Urbasa-joateko gonbitea egin du Sakanako Mankomunitateak. Izan ere, Mank-ek Sakanako Elurraren Eguna antolatuko du, elurra dagoenean zehaztuko duten egunean. Elurraren eguna prestatzeko, honako talde eta entitateen laguntza izango du Mank-ek: Urbasa-Andia Ipar Eski Lagunak, Altsasuko Mendigoizaleak, Navarmushing Txakur Lera Kluba, Sakanako Garapen Agentzia eta Nafarroako Gobernua.

Aurrekariak

Aspalditik, Mankomunitateak elurra egiten zuenean urtero ipar eski zeharkaldia antolatzen zuten, Andiatik Urbasara. Bere aldetik, urteak dira elurra egiten duen bezain pronto Urbasa Andia Ipar Eski Lagunak taldeko kideek elurrarengatik itxita zegoen Otxoportilloko bidea makinekin zapaldu egiten zuten, bertatik ipar eskian aritzeko. Elkarlanean hasi ziren eta, horrela, duela bi urte Elurbusa antolatu zuen Mank-ek, elurra-ekin Urbasan aparkatzeko arazoa baitzegoen eta jendeari erraztasunak emateko. Eta aurreko urtean Elurraren eguna prestatzea erabaki zuten. Egitasmoa gauzatzea ez zen posible izan, ez zuelako elurrik egin. Baina aurten badirudi elur urtea izango dugula, eta, hortaz, Elurraren eguna antolatu ahal izango dela.

“Badirudi aurten elurra egingo duela eta horregatik, Elurraren Egunerako izena ematea zabaldu dugu. Interesa dutenek eman dezatela aurretik izena, eta elurra egiten duenean zehazten dugun egunean, beraiekin harremanetan jarriko gara egun zehatzaren berri emateko eta bertan parte hartu nahi duten galdetzeko” azaldu digu Mankomunitateko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak.



Aurreko urtean Elurraren Eguna aurkeztu zutenekoa.

INTERESATUEK AURRETIK KONPROMISORIK GABEKO IZENA EMATEA ZABALIK DUTE

Ipar eskia, elur-erraketak, musherrak, argazkiak, paseoak, trineoak eta elurbusa

Horrela, elurra egiten duenean zehaztuko den egun batean Sakanako Elurraren Eguna antolatuko du Urbasan. Urbasa Andia Ipar Eski Lagunak taldekoek, elurra egiten duen guztietan bezala, eskiatzeko pista prestatzeko Otxoportillon eta pista gehiago prestatuko dituzte. Eskiatzeaz gain, raketekin ibilbideak eta oinezko ibilbideak egiteko aukera egonen da, Altsasuko Mendigoizaleak taldeko eta Miruako Dani prest baitaude ibilbide batzuk erakusteko eta, bestalde, musher erakustaldia egingo da, lera txakurrekin. Eta, jakina, nor bere kabuz joan daiteke argazkiak ateratzea, paseatzera, leran ibiltzea edo dena delakora. Elurbusak igo eta jaitsi egingo ditu egunean

izena ematen dutenak, bizpahiru bidaia egingo baititu gora eta behera.

Eskiatzeko prestatutako pista errespetatzeko deia

Urbasa-Andia Ipar Eski Lagunak taldeak 8 urte daramatza Urbasako Otxoportillon ipar eskia egitea ahalbideratzen. “2010ean eman ziguten baimena. Urbasa Andia Natur Parketik konfirmatu ziguten elurra edo izotza egiten duenean Otxoportilloko errepidea trafikoari itxita gertatzen dela. Horrela, pista horretako elurra zapatu eta bertan ipar eski pista prestatzeko aukera ikusi genuen. Elurra zapatzeko makinak prestatu genituen eta, ordutik, Nafarroako Gobernuaren baimena eskuetan, nahi duen orok eskiatu ahal izateko pista prestatzen dugu” azaldu digute. Tamalez, ibilgailu edo todoterreno batzuk bertatik ez zirkulatzeko debekua ez dute errespetatzen, pistan sartzen dira eta pista apurtzen dituzte. “Jendeak arauak errespetatu ditzala, hori eskatzen dugu. Egingo dako lana zapuzten dute eta ondoren ezin da bertatik eskiatu edo musherrik sartu. Horre-

gatik jendeari eskatzen diogu seinaleak errespetatu ditzala, elurra dagoenean Otxoportillotik ezin da autoz ibili” gaineratu du teknikariak.

Eski ibilbideak

Gorka Garciak aipatu zuenez, Otxoportillotik Eskizako saroirara bitarteko 5 km-ko pista prestatzen dute makinekin, eskiatu edo lera txakurrekin ibili ahal izateko. Eta pista edo senda nagusi horri lotuta, bi ibilbide zirkular prestatu dituzte, gune batean bat egiten dutenak. Zortzi bat osatzen dute, eta horregatik 8 deitzen diote. Senda nagusitik doaz, baina paraleloki ateratzen dira eta ondoren sendarekin bat egiten dute edo, bestela, bigarren eratzunarekin, Eskizako sendako perimetroan. Horrela, uneoro senda nagusitik ibili nahi dutenek horrela egin dezakete, eta atera nahi dutenek, aukera dute. Gainera, hainbat puntutan senda nagusira itzuli daiteke. Lehen eratzunaren ibilbidea 11 km-koa da, joan eta etorri, eta bigarrena 15 km-koa.

Bestalde, erraketekin egiteko bilbide zehatz batzuk markatu dituzte, askotan jendeak ez dakielako nondik ibili. “Lehen ibilbidea 3 km eta erdikoa, joan etorrian, bigarrena 7 km-koa, joan etorrian eta hirugarrena 11 km-koa, joan eta etorri. Martxa hauetan parte hartu nahi dutenek Sakanako Mendigoizaleak taldeko kideez lagunduta egin ahal dute bidea. Eta norbaitek monitore bat kontratatu nahi badu, erraketekin ibiltzen ikasteko, Miruako Dani prest dago. Bestalde, Navarmushing Txakur Lera Klubekoekin lera txakurrekin ibiltzeko aukera dago.

Izena emateko

Sakanako Elurraren Egunerako interesa dutenek Sakanako Mankomunitatera hots egin behar dute (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.eus) eta konpromisorik gabeko aurre izena eman. Mank-en datuak hartuko dituzte eta eguna, autobus ordutegiak eta beste dakizkitenean pertsona hauei helaraziko zaizkie eta orduan egingo da behin betiko izena ematea. “Normalean astearte-asteazkenerako jakingo dugu igande horretan elurra egoki egongo den ala ez. Eta orduan abisatuko dugu” azaldu du Gerrikagoitiak.

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Lagun Artea – Artajonés	2-1
Aibarés – Etxarri Aranatz	1-0

SAILKAPENA	
1. Lagunak	31
13. Lagun Artea	14
15. Etxarri Aranatz	9

PARTIDUAK	
LARUNBATEAN	
16:00 Aibarés – Lagun Artea Oibarren	
18:30 Mutilbera – Etxarri Aranatz	
<i>Mutiloabeitin</i>	

Lehia borrokatuan, Zubiriak eta Cruzek Lagun 2 eta 0 aurreratu zuten. 80. minutuan Artajonésék gola sartu zuen, baina Lagunek ongi eutsi eta 3 puntuak etxean geratu ziren. Oibarren, Aibarésék eta Etxarrik jokaturako lehia ez zen ona izan. Zoritxarrez, Aibarésék azken minutuan gola sartu zuen.

ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK	
Altsasuk atseden jardunaldia zuen	

SAILKAPENA	
1. Lagunak B	28
6. Altsasu	20

PARTIDUAK	
IGANDEAN	
16:00 Aurrera – Altsasu Leitzan	

Atseden jardunaldiaren ondoren igandean Leitzan jokaturako du Altsasuk Aurrera taldearen kontra.

EMAKUMEEN ERREG.

EMAITZAK	
Izarra – Altsasu	7-0

SAILKAPENA	
1. Berriozar	43
14. Altsasu	11

PARTIDUAK	
ILBELTZAREN 28AN	
Zehaztu gabe Altsasu – Mulier	
<i>Dantzalekun</i>	

Altsasu 14.a da sailkapenean. Ilbeltzaren 28ra bitartean atseden hartuko du emakumeen erregional mailak.

ELOMENDIKO TXAPELK.

EMAITZAK	
Basati – Zaldua	1-1

SAILKAPENA	
1. Unziti	31
4. Zaldua	17

PARTIDUAK	
LARUNBATEAN	
Zehaztu gabe Zaldua – Apolo Lekunberrin	

Arakilgo taldea laugarren postuan dago.



Josu Etxeberria, Galapagarko podiumean. NAFARROAKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA

Josu Etxeberria Espainiako Kopako 2. postuari eutsi dio

PISTA TXIRRINDULARITZA Josu eta Martxel Etxeberria eta Bakarne Gonzalez Espainiako Kopako 2. proban izan dira

Asteburuan Pistako Espainiako Kopako bigarren proba jokatu zen Madrilan, Galapagarren. Nafarroako Pista Txirrindularitza selekzioarekin hiru sakan-dar aritu ziren: Iosu Etxeberria eta Martxel Etxeberria anai iturmendiarrak, Aralar klubeko Intersport Irabia taldekoak biak, eta Bakarne Gonzalez altsasuarra. Iosu eta Bakarne junior mailan lehiatu ziren eta Martxel, aldiz, kadeteetan.

Lan polita

Lan polita egin zuten hirurek. Galapagarreko jardunaldiko azkeneko sailkapenean, junior mailako emakumezko fondisten Euskadiko selekzioko Izarne Maioz izan zen onena (38 puntu) eta Bakarne Gonzalez Aldasoro altsasuarra seigarrena (7 puntu). Eta kadete mailako gizoneneko fondista onenen sailkapenean, Euskadiko Asier

Pozo gailendu zen (40 puntu) eta Martxel Etxeberria 22a sailkatu zen. Junior mailako gizoneneko fondista onenen sailkapenean Madrilgo selekzioko Javier Serrano izan zen finena (34 puntu) eta Josu Etxeberria iturmendiarrak hirugarrena sailkatu zen (26 puntu).

Espainiako Kopako sailkapen orokorra

Gauzak horrela, Espainiako Kopako bi jardunaldi jokatu, sailkapen orokorrean junior mailako emakumezko fondisten mailan Bakarne Gonzalez 7.a da. Kadeteen gizoneneko fondisten mailan, berriz, aurten txapelketan debutatu duen Martxel Etxeberria 26.a da, eta juniorren mailako gizoneneko fondisten mailan Josu Etxeberria bigarren postuan dago, Madrilgo Javier Serrano liderrarekin puntutara berdinduta (26 puntu).



Oier Ormazabal, Maitane Igoa eta Iratxe Lapuente, Basauriko V. Indoorreko kimuen maila mistoko podiumean. SAKANA PATIN

Olazti, Nafarroako irristalarien topaleku

IRRISTAKETA Nafarroako Abiadura Irristaketa Indoor Txapelketako lehen jardunaldia jokatu da bihar, larunbatean, Olaztiko Erburua kiroldegian, 10:00etatik aurrera. Basauriko Indoorrean primerako lana egitetik datoz gure irristalariak

Nafarroako Irristaketa Indoor Txapelketa asteburuan hasiko da, Sakanan. Hain zuzen ere, Sakana Patin Taldeak bihar, larunbatean, Olaztiko Erburua kiroldegian jokatu du, Nafarroako Irristaketa Indoor Txapelketa zabalduko duena. Horretarako Nafarroako Irristaketa Federazioaren eta Olaztiko Udalaren laguntza izan du. Nafarroako irristaketa klub ezberdinetako ehundaka irristalari espero dira, tartean Sakana Patin taldekoak.

Goizeko 10:00etan hasiko dira irristalariak lanean. Kategoria ezberdinetako linea lasterketak eta taldekako errelebo probak egongo dira jokoan. Mini, au-

rrebenjamin, benjamin, kimuak eta haurrak kategoriako lasterketak izanen dira. Hasieran serieak jokatu dira eta, ondoren, finalak.

Basauriko Indoorretik sariz lepo itzuli dira sakandarrak

Igandean Basauriko V. Indoorra jokatu zen. Sakandarrak bikain aritu ziren. Kimuen maila mistoan Oier Ormazabal (Sakana Patin) etxarriarra txapelduna izan zen, Maitane Igoa (Lagunak) etxarriarraren eta Iratxe Lapuente (Sakana Patin) ziordiarren aurretik. Jubenilen mailan Anne Lapuente (Lagunak) txapelduna izan zen, eta gizonen maila absolutuan Unai

Villalobos altsasuarra (Lagunak) bigarrena sartu zen helmugara, meritu handiz. Master mailan Oscar Zamarrón altsasuarra, Sakana Patin taldeko kide eta entrenatzailea bigarrena sartu zen ere. Eta, bukatzeko, amerikar erako erreleboetan Ana Rita Correia altsasuarra eta Anne Lapuentek osatutako bikoa lehendabizikoa sailkatu zen bere mailan.

Domina Iosebarendako

Gaur, ostiralean, Irristaketako 4. Gala antolatu dute Bartzelonako Museu Olympic i de l'Esporten. Tartean, Ioseba Fernandez irristalari iturmendiarrari urrezko domina emango diote.

SAKANAKO TOPAKETAK

KIMUAK

IGANDEAN 8. JARDUNA ETXARRIN

10:00 Sutegi – Lagun Artea

11:15 Kaixo – Tipi Tapa

11:00 Urdiain – Etxarri Aranatz

Sakanako Futbol Topaketen barruan, igandean, abenduaren 3an, kimuen mailako 8. jardunaldia jokatu da Etxarri Aranatz. Benjaminen mailakoek atseden jardunaldia izango dute hurrengo asteburura arte. Sakanako Mankomunitateak antolatzen ditu topaketak, Sakanako klubekin batera.

Arrieta eta Mintegi txukun

ZIKLOKROSA Asteburuan Espainiako Ziklokros Txapelketa jokatu zen Legazpin. Nafarroako selekzioaren aritu ziren Aralarko Igor Arrieta eta Burundako Iker Mintegi. Igor Arrietak matxura mekaniko bat izan zuen eta, azkenean, 7.a sartu zen eta podiumeko borrokatik kanpo geratu zen. Mintegi 11.a iritsi zen helmugara.



NAFARROAKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA

Azanzaren Euskadi profesionala, aurkeztuta

TXIRRINDULARITZA Movistar Team taldeko Mikel Landa presidente duen Euskadi Fundazioaren nahia egun maila kontinentalean dagoen talde laranja "gorenean" ikustea da. Azanzaren helburua taldeak maila profesionalari "tamaina hartzea" da

Astehenean Bilboko Azkuna Zentroan aurkeztu zuen bere burua Euskadi Fundazioa talde profesional kontinentalean. Afizionatuen mailatik profesionalera egin du salto taldeak, eta egun Movistar Team taldeko txirrindularia den Mikel Landa da fundazioaren presidente berria. "Miguel Madariagak erreleboa behar izan duenean errelebo hori emateko beharra sentitu dut. Erroka handia da, maila emango ote dudana ala ez, presio hori sentitzen dut, baina amets bat daukat: Euskadi Fundazioa gorenean ikustea" azaldu zuen Landak. "Euskadi Fundazioa gabeko txirrindularitza ez dut ulertzen. Tourrera joan izan naiz, marea laranjaekin, Euskaltel-Euskadiko txirrindulariak animatzera. Bide batez, ibilbide guztian txirrindularitza proiektu hau babestu duten enpresei eta instituzioei eskerrak eman nahi dizkiet, eta baita ere beheko kategorietan lan gogorra egiten duen jende guztiari ere, euskalduna munduko harrobirik onena egiten dutelako" nabarmendu zuen.

Mikel Landak, Orbeak eta Etxeondok babestuko dute Euskadi Fundazioa, besteak beste. Jorge Azanza txirrindulari ohi altsasuarra, orain arte amateur



Azanzak zuzenduko du Euskadi Fundazioa maila profesionala ibilbidean. EUSKADI

GEHIENAK BERRIAK DIRA MAILA PROFESIONALEAN, ETA MAILARI EGOKITZEA IZANGO DA GAKOA

mailako Euskadi Fundazioko zuzendaria zena izango da maila kontinentaleko taldea zuzenduko duena. 12 txirrindulariko plantilla du bere agindutara: Ricardo Garcia, Jon Ander Insausti, Peio Goikoetxea, Egoitz

Fernandez, Iker Azkarate, Txomin Juaristi, Mikel Alonso, Ibai Azurmendi, Gotzon Martín, Diego López, Marc Buaes eta Juan Antonio Lopez Cozar. Hauetatik 6 igo dira Euskadi Fundazioa talde amateurretik, eta beste 3 beste talde amateur batzuetatik. Hortaz, Euskadik 9 amateurrei eman die profesionala izateko aukera.

Maila kontinentalari tamaina hartzea

Jorge Azanza zuzendari altsasuarra pozik zegoen aurkezpe-

nean. Nabarmendu zuenez, amateur mailatik profesionalera egin duten salto honetan, kategoria berriari tamaina hartzea da helburu nagusia. "Urtea ahalik eta modu hoberean hasi nahi dugu, baina, bereziki, taldea profesional mailako kategoria berrira egokitzea izango da helburu nagusia. Txirrindulari gehienak berriak dira maila profesionalan, hiru izan ezik. Hortaz, beterranoek, Mikelek, nik neuk eta staff guztiak lagunduko diegu, ahalik eta hobekien egoki daitezen lan egingo dugu. Hori da gure eginbeharra, pausak ematen jarraitu, proiektu hau sendotu eta etorkizunerako hazten jarraitu dezan".

Altsasuarra nabarmendu zuen Euskadi Fundazioan ez dutela presarik. "Gauzak ongi egitea da gure helburu nagusia, ikasten jarraitu eta kategoriarik tamaina hartu. Txirrindulari hauetatik 9 nirekin ibili dira ni zuzendari nintzela eta beste 3 jubenilak zirenetik ezagutzen ditut. Harreman eta batasun handia dago eta horrek gauzak erraztuko ditu" aitortu zuen aurten erroka polita duen Jorge Azanzak. Izan ere, berak ere profesional mailan zuzendari bezala debutatuko du, orain arte talde afizionatua zuzendu baitu.

Pablo Urtasun eta Jose Luis Arrieta

Jorge Azanzak gain, dagoeneko Australian hasi den 2018 denboraldian beste bi sakandar ditugu txirrindularitza talde profesionala zuzendariak. Pablo Urtasunek Team Ukyo talde japoniarreko zuzendari lanetan jarraituko du eta Jose Luis Arrieta ere ekin dio 2018 denboraldiari, Movistar Team taldeko zuzendari lanetan.



Egun borobilak bizi dituzte berdeek. XOTA

Osasuna Magnak 2 puntura du 3. postua

ARETO FUTBOLA Rios Renovables eta Gran Canariari irabazita, laugarrena da talde berdea

Aurreko ostiralean Osasuna Magnak garaipen garrantzitsua lortu zuen Anaitasunan: 4 eta 2 irabazi zion Rios Renovables Zaragozari, partida serioan. Eric Martel, Bynho, Alex Llamas eta Rafa Usin izan ziren golegileak. Eta asteartean, ligako 20. jardunaldian, gol festa ederra ospatu zuten Imanol Arregiren mutilek, 3 eta 9 irabazi baitzioten Gran Canariari. Goitik behera agindu zuten berdeek eta Dani Saldise (2), Rafa Usin (3), Eric Martel, Binho, Araça eta Sergio Parra, bere ate propioan, izan ziren kanariarren atean asmatu zutenak.

Europako Txapelketagatik atsedendia

Lehen mailako sailkapenean Inter Movistarrek jarraitzen du lider (53 puntu) eta Osasuna Magna laugarrena da (43 puntu), Barcelona bigarrena eta El Pozo Murcia hirugarrena 2 puntu eskasera dituela. Orain lehen mailako ligak atsedendia hartuko du, Europako selekzioen arteko Txapelketa baitago jokoan. Aipatzekoa da Espainiako selekzioarekin ariko dela Rafa Usin. Otsailaren 17an jokatu da ligako 21. jardunaldia eta Osasuna Magnak Cartagena hartuko du Anaitasunan.

Rural Kutxaren aurkezpena

TXIRRINDULARITZA Rural Kutxa-Seguros RGA taldeen aurkezpena aurreko ostegunean egin zuten, Iruñeko Baluartean. Amateur mailako taldean sakandar bakarrak jarraitzen du taldean, Eneko Aramendia iturmendiarrak. Baina talde berdean 4 denboraldi egin zituen Odei Juango lakuntzarra Telcom taldean arituko da aurten.



RURAL KUTXA-SEGUROS RGA

Joseba Arlegiren Amerikako eskalada

ESKALADA Joseba Arlegi eskalatzaile irurtzundarrak Amerikako eskalada pasadizoak ekarriko ditu gogora bihar, larunbatean, 19:00etan, Olaztiko Kultur Etxean, Iñigo Aritzako Bizi Kultura programazioaren barruan

Iñigo Aritza ikastolak Bizi Kultura errondaren barruan antolatutako kultur programazioak asteburu honetan Olaztiko mendizale eta eskalatzaile irurtzundarrak AEBtako mendebaldean eskalatzen prestatutako proiektzioa ekarriko du Olaztiko Kultur Etxera, larunbatean, ilbeltzaren 20an, 19:00etan.

Eskalatzen eskarmentu handia du irurtzundarrak eta zaletasun hori praktikara eramanez, 2014ko udazkenean hiru hilabete eman zituen Joseba Arlegik beste lau lagunekin batera, Utah, Nevada, Arizona eta Californiako parke naturalak eta paraje ikusgarriak bisitatu eta estatu hauetako mundu osoan ezagunak diren aipatutako tokietan eskalatzen. Yosemite, Zion Canion, Indian Creek... bertan aritu ziren. Hemen, Euskal Herrian, kirol eskalada egiten da gehien, paretak ongi ekipatu eta zailtasun bila. Baina AEBetara eskalada tra-



Joseba Arlegi eskiatzaile irurtzundarra Yosemitean. JOSEBA ARLEGI, ARTXIBOA.

dizionalaren bila jo zuten: paretako bideak ekipatu gabe, pitzadura, tarte eta arrakaletan eta zuloetan eskalatzaileek jarri eta kentzen diren anklaje flotanteak erabili behar dira. Abentura handia bizi zuten, paretan

handietan gaua hamaka batean zintzilik ematea tartean.

Capitan

Aurretik, 2008an, Yosemiteko Capitan famatua eskalatzen izan zen Joseba Arlegi, Iruñeko 5

lagunekin. Hura "beste historia bat" izan zela aipatu izan du askotan irurtzundarrak. "Yosemite Valley eskaladan mitikoa da eta mundu mailan erreferentzia da. Han egotea sekulakoa izan zen, Capitan famatura igotzea eta bertako paretan ikusgarriak ezagutu eta igotzea... kristona. Lekua ezagutzea amets bat betetzea izan zen" azaldu zigun orduan Irurtzundarrak.

Yosemiteko eskalada sekulako urratsa izan zen berarendako. "Yosemite kirol eskaladaz kanpo dago. Guk egin genituen bideak klasikoak dira, baina horrek ez du esan nahi errazak zirela. Beste mundu bat da. Gehienetan anklajeak jarri gabe zeuden eta hortaz, motxilan denetatik eraman behar zenuen: anklajeak, materiala, janaria, lo egiteko hamaka... Azpiegitura edo logistika ongi antolatzea ezinbestekoa zen, materiala ongi lotzea. Pentsa zapatila bat edo hamaka edo jatekoa erortzen zaizula. Zureak egin du! Eta gero material hori guztia gainean duzula paretan gora egin behar duzu. Eta bi egun edo gehiago jarraian eman ditzakezu, hortaz, paretan lo egin behar, hamakan. Hemen egiten dugunarekin alderatuta, beste mundu bat da" azaldu zigun Arlegik.

Ohiko eskalada teknikez gain beste teknika batzuk erabili zituzten Yosemitean, tartean Big Wall teknika bereziak. "Yosemitera itzuliko nintzateke berriz,

toki bikaina da" azaldu izan du askotan.

Hau guztia erakutsiko du mendizale eta eskalatzaile irurtzundarrak larunbatean, 19:00etan, Olaztiko Kultur Etxean. Izan ere, irudiak hartzeko bi kamara erabiltzen ditu irurtzundarrak. Reflex handi batekin paisaiaren argazkiak eta beste ateratzen ditu, eta eskalatzen dagoenean kamara konpaktu txikia daruma. Bera ibilitako paraje ikusgarrietan barna bidaia egitera gonbidatzen digu Bizi Kulturak.

Ekaitz Maizen Karakorum Etxarrin

Ekaitz Maiz eskiatzaile eta alpinista etxauriarrak Karakorumgo Shipton Spire (5852 m) igotzeko egindako espedizioaren berri emango du Etxarrin, *Shipton Spire Karakorumgo sugarra* izeneko hitzaldia eta proiektzioa eskainiko baititu gaur, ostiralean, 20:00etan, Etxarri Aranazko Kultur Etxean. Izandako zailtasunak, hartu beharreko erabakiak... guztiak izango ditu hizpide.

SASKIBALOA CBASK vs Liceo Monjardin, oilarren arteko lehia

Eguberrietako oporren ondoren, senior mailako gizonen CBASK taldeak bikain egin dio Nafarroako Saskibalo Federazioiko Gizonezkoen 1. Senior Autonomikoko ligari. Larunbatean, Tafallan, Escaleras Aguerri taldeari 61 eta 72 irabazi zion CBASK-ek, garaipen oso garrantzitsua, postuz igo eta CBASK orain sailkapenean bigarrena delako, 18+9 punturekin. Liceo Monjardin da liderra (19+9). Eta hain zuzen ere larunbatean, 16:45ean, CBASK taldeak Liceo Monjardin liderra hartuko du Zelandi kiroldegian. Partida interesgarria da, ikusmin handia piztu duena, hain zuzen ere lidergoa dagoelako jokoan.



GUAIXE

Nafar Kirol Jolasak Dantzalekun

ATLETISMOA Nafarroako Atletismo Federazioak antolatuta, Neguko Nafar Kirol Jolasen Pista Atletismoko 7. jardunaldia hartu zuten larunbatean Dantzalekuko atletismo pistek. Zehazki, 14 urtez azpiko kategoriako Nafarroako Atletismo Klub ezberdinetako atletak izan ziren Altsasun lehiatu zirenak.

Atletismo proba ezberdinak burutu zituzten. Luzera jauziak, tartean jauzi hirukoitzak eta hainbat lasterketa proba (500 m, 150 m, 1.000m, martxa eta erreleboak) jokatu zituzten. Haize fina izan zuten aurkari, baina, zorionez, ateri eutsi zion eta atletismoaz gozatzeko aukera izan zuten Altsasun bildutako atletek.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 19

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa. 19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.



ALTSASU Mainamikirri liburuaren aurkezpena egingen dute Castillo Suarezek, Jose Mari Morcillok eta Enara Insaustik. 19:00etan, Basoko Marin.

ALTSASU Altsasuko Peñetako kide gisa izena emateko eta aurretik daudenak jarraipena ziurtatzeko. Urteko kuota 60 eurokoa da. 19:00etan, Gure Etxea eraikinean

ETXARRI ARANATZ Ekaitz Maiz alpinistak *Shipton Spire Karakorumgo sugarra* hitzaldia eta proiektzioa emanen ditu. 20:00etan, kultur etxean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak. 20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU Wonder wheel filmaren emanaldia. 22:00etan, lortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA Susana Soletok eta Diego Perezek bakarriketako. 22:30etan, kultur etxean.

LARUNBATA 20

ALTSASU Altsasu eta Gasteiz arteko 105 km-ko joan-etorria egingen dute Barranka Txirindulari Taldeko errepede atalekoek. 9:30etan, San Juan plazatik.

IRURTZUN Irurtzundarrek herriaren egoerari buruzko iritzia eman eta hobetzeko proposamenak emateko bilerak antolatu ditu udalak. 11:00etan, gaztelaniaz, eta 12:00etan, euskaraz, udaletxean.

IRURTZUN Bikotekako futbolin txapelketa. 16:00etan, Larrazpi gazte elkartearen.

URDIAN ETA ALTSASU Gartzia Ximenez errege izendatu zutela 1301 urte bete zirela oroitzeko ekitaldia. 17:00etan, San Pedro zelaian.

ALTSASU Casino royale filmaren emanaldia. 17:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

OLATZAGUTIA AEBko mendebaldean eskalatzeko proiektzioa egingen du Joseba Arlegik. 19:00etan, kultur etxean.

IGANDEA 21

ALTSASU Lizarragako tunelera 48 km-ko joan-etorria egingen du Barranka txirindulari klubeko mendi-bizikleta taldeak. 09:00etan, klubeko bajeratik.

ALTSASU Paddington 2 filmaren

emanaldia. 17:00etan, lortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA Pupu eta Lore pailazoek *Haizearen herrira* antzezlanak jokatuko dute. 17:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Canción de Nueva York filmaren emanaldia. 17:30etan eta 19:40etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Wonder wheel filmaren emanaldia. 19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 22

ALTSASU Mainamikirri liburuaren aurkezpena egingen dute Castillo Suarezek, Jose Mari Morcillok eta Enara Insaustik. 17:00etan, liburutegian.

LAKUNTZA Sakanako xenden mapa eta Dastatu Sakana markaren aurkezpena. 18:00etan, Sakanako Mankomunitatearen egoitzan.

OSTEGUNA 25

ETXARRI ARANATZ Irakurle taldeak Alberto Ladronen *Jainkoen zigorra* (2017, Elkar) liburuaz hizketatuko da. 19:00etan, liburutegian.

ALTSASU Una bolsa de canicas filmaren emanaldia. 19:00etan, lortia kultur gunean.



ALTSASU Momentos izenburua jarri dio Chuma Arginarizek bere pintura erakusketari.

Otsailaren 2ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara, lortia kultur gunean.

Ez zaituzte
harria bezain
hotza izan!

Zorion agur goxo batekin
zoriondu ondoan duzun hori



zorion@guaixe.eus

IRAGARKI SAILKATUAK

OHARRAK

Odol-emaileak. Etxarri Aranatz: ilbeltzak 17 eta 24, 17:00-20:30

Etorkizuna dantza eskola. Aurten 25 urte betetzen ditu eta argazkien eta bideoen bilduma egin nahi du. Materiala e-posta honetara bidali daiteke: musikaeskola@altsasu.net. Edo USB memoria batean sartu eta hara eraman daiteke ere. Musika eskolako idazkaritzan paperezko argazkiak ere eskaneatuko dituzte. Hilaren 30era arte jasoko dute materiala. Jasotakoarekin erakusketa jarriko dute otsailaren 22tik martxoaren 12ra.

Otadiko ermitaren alde. Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpinak parrokian edo herriko banku eta kutxetan zabalduko kontuetan sartu daitezke.

Enplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresarien Elkarrekin langabeei eta lan bila dabilenentzako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Auzolana Josefina Arregui klinikari. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinikari) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela

3 M B k o n t u k o r r o n t e a z a b a l d u d u R u r a l k u t x a n e t a j e n d e a k h a n e g i n d i t z a k e e k a r p e n a k 3 0 0 8 0 0 9 3 6 6 2 4 6 0 9 8 5 8 1 1 .

ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.eusko-

news.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaldu eta finantzatzen: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

GoiEneer Iruñean. Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpinak egitera

Nicoleren aldeko diru-bilketa. Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korrante honetan sartu dezake dirua: ES33 2100 5365 2301 0002 9770.

Volkswageneko langileendako deia. Iruñeko lantegiak zure elkartasun proiektua deialdia bigarren urtez aurkeztu du. Bocalan Biak Bat fundazioak "Lau zango milaka irri" programa aurkeztu du laguntza deialdi horretara. Proiektua aurkeztu duten Sakanako elkarte bakarra dira. Fundaziotik Volkswagen-eko langilak 24 proiektuaren aldeko botoa ematera animatu dituzte.

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpinak kontu korrante hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16

0700279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965


Euskaldun bat euro bat. Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxauzia gaztelua euskaldunentzat berreskuratu nahi da. Nafararren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gune bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com

Helduen Nafarroako Euskalkantu Jaialdia. Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak nafarroko-euskalkantu@gmail.com edo amadominguez@tafallai-kastola.org e-postara diatzi dezake, helduen jaialdirako dela adieraziz.

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslarietako abenduaren 30 ekimenean parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpinak egiteko kontu korrantea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoa
Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurtekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euri-takoak eta mikilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.
www.iragarkilaburak.eus

**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**edo eskelak@guaixe.eus

► Hileta egunean eskela Guaixe Paperean:


Oroigarria edo Esker ona Guaixe Paperean: 50,82 €

Guaixeko bazkideendako 45,74 €


► Eskela pertsonalatuak Guaixe Paperean:

75,02 € / Guaixeko bazkideendako 67,52 €


EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 19


Euria egin dezake eguneko momentu desberdinetan. Tenperaturari dagokionez, goizean epel hasiko da eguna, baina gau partan elur maila 1000 metrotara jetsiko da.

Larunbata, 20

Euria izango da gaurko protagonista San Saastin egunean. Eguraldi desatsegina izango dugu egun guztian zehar, hala ere, tenperaturak ez dira gehiegi jetsiko.

Igandea, 21

Euriarekin jarraituko dugu, baina tenperatura goxoak nabarmenduko dira Sakanako osoan, hodeien ondorioz ez baitira tenperaturak jetsiko.

Astelehena, 22

Eguraldia hobetuz joango da egunak aurrera egiten duen heinean. Tenperaturaren igoera sentituko dugu egunaren azken orduetan.

40 tanatorios **IRACHE**
aniversario
Tanatorioak: Altsasu – Iruñea – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

Dementziak dantza ikuskizunaren ardatz

Iruñeko Ortzadar Euskal Folklore Elkarteak momotxorroak parte diren dantza ikuskizuna prestatzen ari da. Iruñeko Gaiarre antzokian emanen dute, maiatzaren 26an, 20:00etan. Irabaziak Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoarendako izanen dira

SAKANA

Josefina Arregi klinika ezagutu ondoren sortutako ikuskizuna da Ortzadar Euskal Folklore Elkarteak sortutakoa. *Ahazturaren lorratza* izenburua du dantza ikuskariak. Elkarteko Anak eta Anderrek klinikari bertan aurkeztu zuten igandean. Lanaren haria ez zuten asko argitu nahi izan. Hori bai, aurreratu zuten dementzia gaitzak haiek pairatzen dituztenen ikuspegitik eman nahi dituztela alde batetik. Eta, bestetik, emanaldia ikustean gaitzaren eragina pairatzen duten pertsonak identifikatuak sentitzea nahi lukete.

Josefina Arregi klinikaren aldeko ikuskizun hori prestatzen buru belarri ari dira Ortzadarrekoak. Gidoia prest dute eta igandean azaldu zuten, klinikari "keinua" eginen diote.

Hainbat partaide

Ortzadarrek Gaiarre antzoki iruindarrean emanen duen emanaldian partaide ugari izanen dira oholtzan. Alde batetik, elkarteko 25 dantzari eta Ortzadar folklore eskolako haur dantzariak. Haiekin batera fanfarreko 10 kide izanen dira. Baita Buztintzuriko erraldioen konpartsa eta Altsasuko momotxorroak ere.



Ortzadar elkarteko kideak ikuskizunaren berri ematen.

Guztia behar bezala garatzeko ikuskizunak bi erregidore ditu. Eta halakoetan ohikoak diren argi eta soinu teknikariak ere. Guztiak musutruk ariko dira.

Erronka

Bai Anak bai Anderrek gaztigatu zuten Gaiarre antzokia betetzea izanen dela erronka. Aretoak, plateak eta palkoek 680 pertsonarendako lekua dute. Sarrera guztiak salduz gero anfiteatroa ere zabalduko lukete eta horrela 800 pertsonarendako tokia izanen litzateke. Sarrerak tokia-

ren arabera 10 eta 14 euro artean izanen dira salgai, antzokiko txarteldegian eta bere web gunean. Ikuskizunera joan ezin direnendako ikuslearen zero lerroa ere prestatu dute, hau da, emanaldira joan gabe diru ekarpena egiteko aukera.

Ortzadarreko kideek emanaldi bakarra dute aurreikusia. Baina Gaiarre betez gero ez lukete besteren bat eskaintzea baztertuko. Hala ere, antzokira joaten diren guztiak Josefina Arregi klinikari buruz esku-orri banarekin aterako dira.

Umeendako albumak nola kontatu ikasi nahi?

Ikastaroa ilbeltzaren 27an, larunbatarekin, 10:00etatik 13:30era izanen da, Olatzagutiko liburutegian

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak albumak kontatzen ikasteko lantegia prestatu du, Olatzagutiko Udalaren laguntzaz. Saioa 0 eta 8 urte arteko haurrak dituzten guraso, zaintzaile, irakasle, irakasle-gai, monitore eta liburutegiko arduradunendako dago zuzenduta. Pello Añorga idazleak albumak aukeratzen eta erabiltzen ikasteko argibideak emanen ditu, horrela, txiki-txikitatik haurren liburuekiko harreman afektiboa sortzeko.



Lantegian parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute alde aurretik euskara1@sakana-mank.eus helbidean. Tokiak mugatuak izanen dira. Matrikula 10 eurokoa izanen da.



BAZTERRETIK

JOSE LUIS ASENSIO

Bakardadea 1

Japonian bere buruaz beste egiten duen jende kopurua ikaragarri altua da. Munduko altuenetarikoa. 22 eta 44 urteko gizonen artean hiltzeko modurik ohikoena da. Antzinan, seppuku edo harakiri egitea ohorearekin erlazionatzen zen, baina gaur egun, Japonian bere buruaz beste egitearen arrazoia gizartearekiko nolabaiteko deskonexioarekin dago erlazionatua, batez ere. Hori buruz hitz egingo dut hurrengo artikulu sorta honetan. Ez larritu, guztiak ez dira gaurkoa bezain ilunak izango.

Japoniako gizartean presio soziala ikaragarria da edonorentzat. Gazteek nota onak atera behar dituzte ikastetxe eta unibertsitate hobeentara sartzeko. Honek kompetibitatea pizten du eta askotan bulling-a sortzen da ahulenak jipoituz. Ondorioa, deskonexio soziala, Hikkikomori fenomeno (honi buruz hitz egin dut jada beste zutabe batean) eta zenbaitetan suizidioa.

Lanean hasi orduko, enpresarekiko leialtasuna espero da langile batengan. Eta nola ez, ahalik eta azkarren

barne promozioz lagunduta lanpostu hobea lortzea enpresa barruan estatua hobetzeko. Horretarako, nagusia baino lehen iritsi behar da lanpostura eta azkena alde egin etxera. Berritri ere giro oso kompetitiboan jarraitzen dute eta lanetik kanpo ezin sozialki inorekin erlazionatu.

Presioarekin ezin dutenean, bere eguneroko lanean eragina du eta askotan galdu egiten dute lana. Diru iturririk gabe, jende askok kalean bukatzen du. 90. hamarkadan gainera, errezesio ikaragarria izan zuen herrialdeak eta ekonomian eragin handia izan zuen lanpostu asko suntsituz.

Lanean jarraitzekotan, nabaria da emakume eta gizonen arteko ezberdintasuna. Japoniar gizartea oso tradizionala eta patriarkala da orokorrean eta 30 urte izan aurretik espero da emakume bat ezkontzea. Honela ez bada, lagunek ere baztertu egin dezakete kutsatzeko arriskua izango balute bezala. Ezkontzuz gero ere, presioa ez da desagertzen. Seme alabak izatea espero da, eta etxeko andre bihurtzea. Emakume baten ibilbide profesionala ez da errespetatzen, zoritxarrez toki askotan gertatu ohi den moduan

Irribarrearekin, aurrera

Etxarrin Zama doinu arindu jaialdiaren hirugarren edizioa ospatu zen igandean, sarrera guztiak salduta. "Giza eskubideen errespetuan, gatazkaren konponbidean eta benetako bakerako bidean pausoak emateko guztiok garela protagonista", hori nabarmendu zen musikaren eta Porrotx pailazoaren presentziarekin.



ETXARRI ARANAZKO SARE

Irurtzunen bertso ikastaroa hasi zen atzo

Pikuxar euskal txokoak hasiberriendako bertso ikastaroa antolatu du. Joana Ziganda Olano irakaslea dutela, Pikuxarreko bertso eskolak ostegunetan zabalduko ditu ateak, 19:30etik 21:00etara. Momentuz, "talde polita, anitza eta jatorra" omen dute; zazpi bertsozalek eman dute izena. Haietako batek 23 urte ditu eta gainontzekoak 34tik gora. Baina 15 urtetik gorako nahi duen guztia joan daiteke bertsoan trebatzera. Euskal txokoko arduradunek azaldu digutenez, asmoa da atzo hasi eta lauzpabost saio egitea. "Baina taldeak jarraitu nahiko balu saio gehiago egiteko aukera egongo litzateke".

Arretxe genero beltzari eskainitako Iruñeko astean

Laugarren urtez Pamplona Negra genero beltzeko nobela eta zinearen Jaialdia antolatu dute Iruñean. Gaur, 17:00etan, Erein argitaletxearen Uzta Gorria sailaren 10. urteurrenaren ariko dira Noelia Lorenzo, Carlos Ollo eta Jon Arretxe idazleak Jose Agustín Iturri moderatzaile dela. Hitzordua Elkar liburu-dendan izanen da.

Bi bakarriketa emanaldi bakarrean, Olatzagutian

Susana Soletok eta Diego Perez aktoreek bakarriketa bana eskainiko dute Olatzagutiko kultur etxean, gaur, 22:30ean. Lau emanaldi hartzen dituen kultur abonamenduko lehena ere bada gaurkoa.

Susana Soletok *Un poquito de por favor* bakarriketa eskainiko du. Pertsona natural eta lotsagabe baten paperean, probetxuzko emakumea bihurtzeko bere lagunaren aholkuak jasoko dituena. Diego Perezek, berriz, Fernando Errea gidolariaren *San Jose hecho un cristo* bakarriketa komikoa ekarriko du. Biblian kontaktzen diren gertaeretak bertso propioa eskainiko ditu Jesusen aitak.



Igor Erbiti Saizar Beltx protagonista duen album ilustratua eskutan duela. UTZITAKOIA

Beltx, umeak baso kudeaketara hurbiltzeko

Lur Geroa basogintza enpresak "Beltx beheko basoan" album ilustratua argitaratu du. Umeei "zer erabilpen egiten diren eta basoa nola ustiatzen den" azaldu nahi diete haren bidez. Albuma, antzerkia, tailerrak eta beste dituen proiektu baten zati da

UHARTE ARAKIL / ETXARRI ARANATZ

Beltx proiektua 2015an jaio zela azaldu digu Igor Erbiti Saizarrek. "Aurretik zeuden hariztiei balioa emateko proiektuaren semea da. Gu mendi ingeniariak gara eta aholkularitzan, umei basoen erabilerak eta ustiapenak argitzeko proiektu bat bilatzen ari ginen. Pertsonaia animatu ikonografiko baten bila ari ginen".

Etxarri Aranazko Udalarendako toponimia plan baterako lanean zeudela, 2014an, Jose Luis Erdoziaren laguntzarekin Beheko basoan zeuden eta "hainbat baso-hitz aipatu ziren eta horien artean asko gustatu zitzaigun inberexagu hitza, etxarrieraz saguzarra dena". Sormen proiektuak hortxe izan zuen hasiera. Inberexagua izanen zen pertsonaia nagusia eta haren lagun batzuk definitu zituzten gero.

Proiektu zabala

Beltx proiektua "natur hezkuntza arloan sartu nahi genuen,

baina transbertsala izanik. Oraindik ez diogu teiltua ikusten". Album ilustratua argitaratu aurretik Beltxen istorioa baso-antzerki moduan gauzatu zen, *Beltx aita da* obrarekin. Aurreko hiru urteetan lautan jokatu dute obra Etxarrin dauden ikastetxeendako eta Buztintxuriko eskolako ikasleendako. Antzezlanen ondoren haurrek Beltxi zuzendutako testuak koaderno batean idazteko aukera izan zuten; "gauza oso politak atera ziren, umeak hunkituta zeudela ikusten zen".

Beste jarduera bat izan zen Australian bizi den Jessica fikziozko pertsonaiari haien marrazkiekin gutuna bidaltzea. Australiatik erantzuna jaso zuten.

Umeendako tailerrak egin dituzte ere. "Haietako batean munduan barna dauden inberexaguez aritu ginen: non dauden, zein espezie dauden, Australiako gauenaren ospitalea..." Erbitiren iritziz "proiektuak transbertsa-

la izan behar du, beste arlo batzuk ukituko ditugu". Bost antzerki pentsatuak daude eta albumak ere, ziurrenik, bost izanen dira. Haien artean maitasuna, laguntasuna, etorkinak, geografia, bidaiak eta abenturak... hainbat arlo ukituko dituzte. "Baina beti izanen da Beltx gauza horiek guztiak kontatuko dituenak".

2019tik aurrera Beheko basoan kanpaldiak eta antzerkiak egitea gustatuko litzaioke Erbitiri. Baita bigarren albuma, *Beltx munduan barna*, argitaratzea. Bitartean Beltxen aurreneko albuma Irurtzango Martxueta, Etxarri Aranazko Kaxeta eta Altsasuko Arkatz liburu-dendentan dago salgai.

"NATUR HEZKUNTZAN SARTU NAHI GENUEN, BAINA PROIEKTU TRANSBERTSAL BATEKIN"

Album ilustratua

Beltx desagertzeaz dagoen Bechstein gauenara edo saguzar txiki bat da. "Egoera larrian dagoen espeziea da. Sakanako hariztietan bizi da. Populazioa berreskuratzeko ahalegina egiten ari dira". Beltx egokia izan zitekeela pentsatu zuen Erbitik, nahiz eta inberexaguek jendeari errepaeak sortu. Beltxen bidez azaldu nahi dituzte Inberexaguek "dauzkaten onurak: eltxoak jaten dituztela, polinizatzen dutela, beraz, haien beharra dugula bizitzeko".

Etxarriko baso antolakuntza berriaren oinarriak jartzeko, parte hartze prozesuan erabileren arteko liskarrak atera ziren: "tradizionalak: baso ustiaketa, abeltzaintza, zizak biltzea... Eta berria: gero eta gehiago dira paseatzera, lasterka egitera... Aukera ikusten genuen badela lekua denondako eta denen artean ongi moldatu gaitezkeela".

Horrela aukeratu zituzten pertsonaiak. "Bioaniztasuna zaintzeko oso garrantzitsuak diren okilak. Hortik atera zen Koki, okil beltza edo zurgina, askotan basoan kak, kak entzuten duguna, zulatzen". Txertxei edo txerriak zaintzen dituenak da beste pertsonaietako bat. "Lehen hariztiak bazkalekuak ziren eta txerriak ibiltzen ziren. Eta pertsonaia hori berreskuratu nahi genuen".

Umei basoan zuhaitzak "modu jasangarrian" moztzen direla azaltzeko, "zurarekin eta su egurrarekin erabilpen asko egiten direla" argitzeko egur-zale tradizionala beharrean Maki pirata aukeratu zuten "Pasaiatik bere itsasontzia egitera etortzen da. Hasieran Beltxekin liskarra sortzen da, baina azalduko dio moztutako zuhaitzen ordez berriak landatuko dituela". Ados jarri eta lagun egingen dira.

Hiru enpresari Beltx pertsonaia definitzea eskatu zien. Koldo eta Karoli Villavaren ideia asko gustatu zitzaizen. "Pertsonaia humanizatua, bertakotasuna ematen diona. Aurpegi alaia eta polita dauka". Lehena natur gidaria da eta bigarrenak okilaren hainbat ilustrazio egin ditu. Haiek ilustratu dute albuma, horretarako udaberrian Etxarriko beheko basoan izan ziren, "haritz sinbolikoenei" argazkiak egiten, haiek "albumean islatzeko eta ilustrazioak ahalik eta errealean izateko".

“Beti ikasten ari naiz, margoaren mundu honek ez du etenik”

Jokin Alegria "Kale" margolariak Lakuntzako danborradako ohorezko txanoa jasoko du gaur. Pintura eta musika uztartzen ditu, "musika inspirazio tresna ona dela" uste baitu. Bere ibilbideaz aritu gara Sansaastin bezperatan

Larraitz Amadoz Lazkano LAKUNTZA

1 Ohorezko saria emanen dizute San Saastiñetan, nola hartu duzu?

Gabonetan Ricardo Aretak eman zidan berri ona. Sorpresa handia izan zen, ez nuen halakorik espero, eta poz handiz hartu nuen. Nire lana, batez ere niretako egiten dut, baina besteek ere nik egindako lana ikustea garrantzitsua da.

2 Gustuko dituzu San Saastiñak?

Bai, jakina. Hotz handia egiten du ilbeltzeko festetan, baina asko gustatzen zaizkit. Beste modu batera bizitzen ditut orain; gauean ibili beharrean egunez gehiago, eta umeekin, primeran.

3 Etxekoendako festak izaten dira ilbeltzekoak, ezta?

Bai, agorrilekoekin alderatuz desberdinak dira. Oso giro polita sortzen da, herrikoia, jendetzarik gabe, berezia da lakuntzarrendako. Txikitari danborradan parte hartzen nuen, baina duela urte asko utzi nuen.

4 Noiz hasi zinen pintura munduan?

Txiki-txikitatik. Ni baino zaharragoa den anaia batek ere zaletasun bera zuen, eta hari begira hasi nintzen. Gero klaseak hartzeko saltoa eman nuen.



Jokin Alegria margolaria, bere estudioan azken lanarekin. LARRAITZ

Lehenengo Altsasun hasi nintzen. Ondoren, Iruñera etorri nintzen hainbat akademiatan parte hartzeri eta orain arte beti ikasten ibili naiz. Margoaren mundu honek ez du etenik, horrela aberastan dut nire pintura. Azkenaldian honetan Iruñeko tailer batean sartu naiz, Mikel Espar-

zarenean. Bertan, pintura naturala egiten dugu, modeloak, natura hilak....

5 Zer nolako bilakaera ikusi duzu zuregan urte hauetan?

Pausoz pauso eta mantso-mantso, baina beti aurrera egin dut nire ibilbidean. Hasierako lanak

ikusten ditut, eta gaur egungo obrekin alderatuz, sekulako alde dago. Garai desberdinak izan ditut, hasieran, Afrikako jendea irudikatzen nuen olio, geroxeago, rock munduko izarrak margotu nituen pastelez, eta azken obrak, akrilikoz egin ditut. Erretratu asko egiten ditut orain, oso eroso sentitzen naiz horretan.

6 Musika pasio garrantzitsua duzu?

Bai. Musika eta pintura uztartzen ditut, inspirazio tresna ona dela iruditzen zait. Disko bat aukeratzen dut, horixe da egiten dudana lehen gauza, eta ondoren, margotzeko onea iristen da. Musika erreferente asko ekarri ditut pintura mundura, El Drogas, Metallica... hauek margotu nituenean haien musika entzuten nuen.

7 Antonio Lopez margolari eza-gunarekin egoteko aukera izan duzu.

Pinturak eman didan gauzarik onena berarekin emandako tailerra izan da. Urtean behin ematen dugu ikastaroa aste oso batez, Nafarroako Unibertsitatean. 30 pertsona soilik sartu daitezke tailerrean, eta oso zaila da, mundu osoko eskaerak daudelako. Hautatu nindutenean, izugarri poztu nintzen.

8 Nolako izan da esperientzia?

Hiru aldiz egoteko aukera izan dut, eta zoragarria izan da horrelako maila duen margolari batekin egotea. Antonio Lopezek tailerreko hiru obra hautatzen ditu esperientzia bakoitzean eta hiru alditatik bitan nire obrak aukeratu ditu; sekulako sorpresa izan da.

9 Non bilatzen duzu inspirazioa?

Edozein lekutan, aldizkari batean, egunkarian, sarean, aurpegiak, egoerak, ikusten eta sentitzen dudaren arabera hautatzen ditut. Argazkilaritza tresna gisa erabiltzen dut batez ere. Aukeratzen ditudan pinturak zerbait esan behar dute, erakrri behar naute lehen momentutik margolan bihurtzeko.

10 Lopez aipatu dugu; erreferente gehiago dituzu?

Alemaniko Sebastian Kruger asko gustatzen zait, musikari asko margotzen ditu. Guillermo Lorca, txiletarra da bera, gaztea eta oso ona. Pastela erabiltzen duen Ruben Belloso... jende asko dago. Onartu beharra daukat, margolari modernoek gehiago erakartzen nautela.

11 Zer duzu esku artean oraintxe?

Lakuntzako Kale Txiki tabernan erakusketa bat daukat orain, Sakanako herrietako pertsona adinduen erretratuak egin ditut. Lan handia izan da, oraindik erronka bukatu gabe dago eta horrekin jarraitzea gustatuko litzaidake. Eta atzo haur errefuxiatu baten lana bukatu nuen. Mezu bat ere helarazi nahi dut obren bitartez. Errefuxiatuen egoera oso gogorra izaten ari da eta hori islatzen saiatu naiz.

Bazkide zozketa

ILBELTZKO SARIAK:

1. SARIA:

AQUARIUM: SARRERA BAT EKAINBERRI: 2 SARRERA ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

2., 3. ETA 4. SARIA:

ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

ETA AURTENGO SARI BERRIA: EUREKA MUSEORAKO SARRERAKI

